

Arrasate

UPRESSU

1995eko
ekainak 2
279. zenb.

ELKARRIZKETA

**Leonor
Astigarraga**

ERREPORTAIA

**Egunkaria
Festa
Arrasaten**

Ekokonsum

**Ondo elikatzen
ikasteko**



Busti zaitez euskaraz!

Uda Ikastaroa 95



Arrasateko Udal Euskaltegia

Ekainaren 27tik uztailaren 24ra arte
5 ordu goizez
Maila guztiak

Matrikulaldia: Ekainaren 1etik 17ra arte

Prezioa: 6.700 pezeta
Materialea: 1.500 pezeta
2.500 pezeta 9,10,11,12 urratsekoek eta Alfabetatze 2koek (materialea)
16 urtetik gorakoentzat Beka sistema daukagu



Arimazuri, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) • Telefonoak: 79 70 77 • 79 77 88 • ARRASATE

Eta orain, nor alkate?

Udal hauteskundeetako emaitzek ez dute argitu nola osatuko den Arrasateko Udal Gobernu eta, beraz, nor izango den hurrengo alkatea. Eta alderdiek ere ez dute pistarik ematen, aukera ugari dagoela eta programa baten inguruan adostasuna lortu behar dela esatea ez bada.

Dena den, politikaz ez dakigunok badakigu bi aukera direla nagusi Arrasaten: edo Gasteizko tripartitoaren inguruan ituna lortzen da, eta kasu horretan EAJko Jose Mari Loiti izango litzateke alkaterik posibleena, edo akordio formalik ezean zerrendabururik botatuenak lortuko luke alkatez, hau da, Xabier Zubizarretak.

Lehen aukeraren alde legoke garbi EAJ, alkatez eskuratuko bailuke eta baita ere PSE-EE, HBri alkatez kentzea lortuko lukeelako, lau urte beranduago eta oraingoan EAJren mesedetan. Zalan-tza gehiago aurrakusten da EAren, ez baitago garbi EAJrekiko harremanak guztiz normalduta daudenik eta, itxuraz behintzat, HBko alkatezarekin nahiko eroso ibili direlako udaletxean lanean.

Bigarren aukerak, berriz, ez luke eskatuko koalizio formalik. Horren ordez, nahiko litzateke aginte banaketari buruzko adostasun nahia eta orain arte egon den besteko elkarlanean boronda-

tea.

Bi aukeren arteko zalantza ekainaren 17an argituko da, baina bitartean alderdiek izango duten erabakitze prozesurako puntu batzuk aipatu nahi ditut:


1- Xabier Zubizarreta alkate estimatua da. Bere alderdiak Batzar Orokorretarako baino 223 boto gehiago lortu ditu udalerako zerrendan.

2- Udal gobernu osatzeko nahikoa da 11 zinegotzi biltzea, eta tripartitokoei 12 bil ditzakete, baina ez litzateke txarra, herriaren ikuspuntutik, gehiengo zabalagoak lortzen ahalegintzea. Botoek ekarri duten ordezkari ugaritasunak hori gomentatzen du nire ustez.

3- Alderdien goiko egituren eta herrikoen artean jarrera kontrajarriak agertzen direnean, goian dago agintea eta herrian presioa. Demokraziaren osasunerako ez da aukerarik txarrena hautatzaileen indarrari lehentasuna ematea, aukera horren ondorioa edozein dela ere.

Ekainaren 17an gertatzen dena gertatzen dela, Arrasateko udal berriari eska dakioko politika orokorraren baldintzak eta alderdien arteko istiluek ez dezatela lehentasunik hartu udal barruko harremanetan, eta zinegotziek lana tinko egin dezaten lau urte barruko Arrasate gaurkoa baino hobea izan dadin.

MIKEL IRIZAR



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikitateak:** Jasone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioak:** Ikeme Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioak:** Golo Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danael Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoia, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatokia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.
ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo Kortabarria



Alkoholarekin arazoak dauzkazu?

Agian, "Alkoholiko Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38


Memesa
79 42 22°



Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Euzko Jauriaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du

Mitua apurtuaz

1.995 ko Maietzaren 12 ko "ARRASATE PRESS" en Karnele Perezek, Mondragueko euskerien alde ta editorial tzat dakarren lanak, uzte dot, mondraoeterron euskerara biurketia medesi dauela, bere onerako, ta neu beintzat biurketara noia. Mondraueko euskerein aldeko lan bat mondrauetar agertu bie zala uste dodalako.

Androntzat = or doia - or joian.

Gizonontzat = or doia-or joiak.

Danontzat = or doiatzue. "Txikitxatik azkerok, askotan entzun doten esaeria da neure inguruan, ta batesbe bertakua dan jente nausixagandik jaso izan doten mensajia; Mondraueko berbaeria "txarra" dala.

Aste onetan barriro neure belarriratu jat, mito biurtu dala dirurixela esaera ori.

Errikuak es diren sembaix jentek be, sarri arpegi-ra esan dustena da hauxe berau.

Txikitxan, jakiña, erantzun barik geldiketetan nintzen, ondio geixau, nire amen berbaeria goierrixtarra sala konturatuas. Orduan, bertako jente nausixak be nire hizketa giputxa garbixautzat artzen euen, ta samurraua zan ortografixa ta sembaix parte gramatikal ta gañerakua entendidutia. Etzan bentaja makala, es orixe!

Oiñ neure ustez, gausak argixauak izenik, hori guzurtzat jo neikela uzte dot. Ta berbaera "txarrik" ez dauela asegurau neike.

Ta gañera, ez dot uzte euskerarik garbixena ta politxena betarra edo Tolosa aldekoa dala errasoiskua danik. "Batuen" antzekuena baleike ta ala uste dot, bai, baña euskal berbaera ugarixen artien ederrena... zergatik?

Emengua baño gozuaua

biar bada... baña obia?. Nun dau ondasuna ta txartasuna?. Zergatik erderian influentzia larregi ta gatxa esarritxen jako Mondragoekuari; bizkaitarrak euren gandik urriñ dauen zerbaitz dala dixue; gipuzkoarrok eurenakin serikusirik ez daukela... Ta mondrauetarrok konturatubarik ta urtietan eskuartien zer geuken (garabixen) jakiñ barik.

Denpora gutxi dala (nire lagun) Gotzon Garatek "arrasateeraren" berbaerien zerbaitx erakustera emon euen. Urtietako mitua apurtu euen.

Baña zela bizi dau berbaera orren mito-apurtueria hemengo sembat institusiñok?

Ofizialtzat be "batua" inponidu dan sasoian gas, berbaera estandar bat bier zen erri arteko desberdiñtasunen gañetik dauen arteko komunikasiorako, literaturarako, berbaerien iraupenerako, ta beste sembaixterako. Baña lan orrek gañezka igex eiñ duzkula uste dot, orrek ez leuke bier gure herrietako berezko etorkisunik ondatu bier, komplementau baño.

Eskoletan umiari zerbaitx korregiruten jakuenien batuen bides zuzenketan jakue. Zergaitxik ez emon orduentxe euren berbaeriak eskinketan dutzen norma zuzenien?. Zergaitxi ez euren berbaerarata eskrituretara baktotxen esaugarrixa ondo definiduas?.

Ikesten dabitzen uniak explikasiño orreik, sarritxan bierrezkuak ditzue, ez ditzue ba zarritxan distingiduten, bata ala bestiak, esaten dauenen artian seiñ dan zuzena ta sein ez.

Herriko komunikauetan ba badau zer eiñik. Komunikauetako berbaeriak be "batu" aldera jo dau, biarrezkuia eiñik; baña ori euskal komunikasiño generaletan logikua izanatik, aiñ logikua da herritxarren arterako?. Ez al geuke iñdartu bier bertako daun modelua?

Ixa ordua da konturatu gaitxesen, aberastazuna uga-

ritxasunien dauela ta eskue-tan daukaun berbaeria, euren bariantiakiñ ugaritxasunen zati bat dala.

Gutako baktotxen lananda, daukaun zatixa, saiñdu ta kultibetia.

Ordua da izen txarren mituari bizkarra emon ta normaltasunaren bidia ekitxeko, berba ta escribidu, bixak ganores eiñ geike ta.!!

Mondrauetarrera biurtu

JOSE M. URANGA

•••••

Xabier Larrañaga aramaioarrari, mala letxe barik

Zur eta lur geratu naiz zure eskutitza irakurri ondoren (A. PRESS 277 zenb.). 271. zenbakian agertu zen nire idazkiak zure ustez "mala letxe gehitxo zeukan", nire "tripetakomina" ere aipatzen duzu eta nireari "eskutitz erretxindua" deritzozu. Ezin dut sinestu, benetan. Bitatik bat: edo zure irakurketa oso interesatua izan da (ni horretan nago) edo ez dut batere asma-tu nire idazkian. Izan ere, nirea irakurri duten guztiek edo gehienek zuk letxe interpretatu badute, hobe dut gehiago ezer ere ez idaztea. Hura idaztean nire asmo eta helburu bakarra oker batez ohartaraztea baino ez baitzen. (Beharbada "madarikatu" berbarekin ez nuen aukerarik onena egin, baina bistan da nik eman nion zentzua eta zuk hartu duzuna ez datoze-la inola ere bat). Oso garbi daukadana da zuk aipatzen dituzun mala letxe eta horiek guztiak ez nituela lagun neure barruan artikuluskua hura papereratu nuenean.

Bestalde, eta arazo linguistikoari dagokionean. (aramaioar/Aramaixotar), nik lehengoan jarraitzen dut,

alegia, Aramaio eta aramaio-ar formak jotzen ditut egokien euskara idatzirako. Eta nago Aramaio Udal Kulturata Batordeak bota zidan arrazoirik gabeko erantzunak (276 zenb.) bere burua deskalifikatu besterik ez duela egiten.

JOSE L. ORMAETXEA

•••••

Zipayokumeei

Orain al duzue beldurra? Urte guzti hauetan zehar zipayoekin batera, txibato lanak eginez, intsumiso, preso, independentzia eta gudarien, bai gudarien!, aldeko manifestazioak jipoitu ostean, erantzun gabe gelditu behar zinetela uste al zenu-ten?


Paktuko komunikabideei jarraituaz, zeuen nagusiei, ardi lelotuen pare zuzentzen dituzue KASen aurka zeuen mihi pozointsuak, aberriaren alde, Euskal Herriaren alde, borrokatu diren Tturko, Txorta eta hainbat eta hainbat gudari erahil dituen pozoin berbera. Hor ikusten da bakoitzaren aberria zein den, batzuk Euskal Herriaren askatasunaren alde bizia ematen duten bitartean zeuek (PNV-EGI) diruaren aberria baka-rrik duzue aintzakotzat, horretarako GALEkin (PSOE) gobernatu behar baduzue edo ordaindutako mertzenarioak (Zipayoak) Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu osoaren aurka jarri behar badituzue ere.

Amaitzeko esan, ez garel-a berdul zeuen mehatxu ton-toez, askatasunaren bidean tinko darraigula eta bide hori hartu edo hil kiratsa darioten poltroietan jarraitzea baka-rrik duzuela aukeran, aukera azken hau izan ezkerok bada-kizue...

Gora Euskadi Ta Askatasuna

ARRASATEKO JARRAI

Nor izango da hurrengo alkatea?




Elias Ortuoste
Jubilatua
(58 urte)

Paktua egin eta Jose Mari Loiti izango dela uste dut. Ondo iruditzen zait, alkate ona izango dela uste dut.




Ines Andres
Ileapaintzailea
(30 urte)

Xabierrek ondo egin duela uste dut eta berak jarraitzea gustatuko litzaidake. Paktu horri buruz ez dut gauza handirik entzun.



Cristina Ortubai
Ikaslea
(20 urte)

Orain arte Xabier Zubizarreta ibili da baina pakturako posibilitateez asko hitzegiten da. Nik uste dut herriak Xabier aukeratu duela eta berak jarraitu beharko lukeela.




Jose R. Mondragon
Zerrajerako langilea
(51 urte)

Paktuaz ez dut gehiegi ulertzen baina egunkariak Loiti irtengo dela diote. Zubizarretak zein Loitik ondo egingo dutela uste dut.



Juanita Bengoa
Etxekoandrea
(62 urte)

Egia esan, berdin zait baina Zubizarretak jarraituko duela uste dut. Ez ditut politika kontuak gehiegi jarraitzen.




Sergio Valle
Ikaslea
(22 urte)

Paktua egiten bada Loiti aterako da eta nire ustez, paktua egingo da. Loiti ez dut ezagutzen baina Zubizarreta alkate ona dela uste dut.



Garbiñe Aperribai,
Etxekoandrea
(62 urte)

Xabierrek dauzka botu gehien baina paktua egitea legezkoa denez, beste alkate bat ateratzen bada, jatorra eta pertsona ona bada, ondo ikusiko dut.



Santi Roman
Irakaslea
(32 urte)

Xabier izatea gustatuko litzaidake, baina zoritxarrez Loiti aterako dela uste dut. Ez dut Jose Mari ezagutzen baina telebistan hitzegiten asko hobetu beharra duela uste dut.

Zure publizitatea
ARRASATE PRESSen

☎ 77 08 15

Astero 6.000 ale Arrasateko etxeetan

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Igalatoria79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Arntzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 (Txanda hartzeko).....77 03 46
 77 07 21
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (berduero)12 01 62
 Gasa900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57
Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55
Monterongo liburategia
 Monterron.....77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 2
 Egunez eta gauzez : Estella, Bergara.
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
Larunbata 3
 Egunez eta gauzez : Estella, Bergara.
 10ak arte: Irizar, Erguin.
Igandea 4
 Egunez eta gauzez: Mozos, Bergara.
 10ak arte: Amezua, Santamaina.
Astelehena 5
 Egunez eta gauzez :Camacho, Bergara.
 10ak arte: Ruiz, Maala.
Asteartea 6
 Egunez eta gauzez: Puy, Bergara.
 10ak are: Morales, San Andres.
Asteazkena 7
 Egunez eta gauzez : Cuellar, Bergara.
 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías
Osteguna 8
 Egunez eta gauzez : Estella, Bergara.
 10ak arte: Español, Iturriotz.

2 OSTIRALA

• **ZINEA**
 "Amor Inmortal" 7etan eta 10etan.

• **BERGARAKO JAIAK**
 Arratsaldeko 8etan Bitoriana-txoren jaitsiera eta Udal Musika Bandarekin kalejira. 11.30etan Laiotz taldearekin dantzaldia San Martin Plazan.

• **XIXKA MAGIA TALDEA**
 Santamainako liburategian arratsaldeko 6etan.

UR JAIJA 1995 MUSAKOLAKO IGERILEKUAN

Ur jaija 95 ekainaren 9tik 10era, Musakolako igerilekuan. 24 orduetan urarekin zerikusia duten ekintzak burutuko dira. Jaia ostiralean eguerdiko 12etan hasiko da eta zapatuan eguerdiko 12etan bukatu. Kiroletako albistean Ur jaija aste honetan dela jarri badugu ere, datorren ostiralean izango da.

SOLDADUZKAN DAUDENENAKO OHARRA

San Juan Jaiak direla eta, Alkatetzak soldaduzka egiten ari diren arrasatear guztien senide eta adiskideei dei egiten die euren helbidea eta eskutitza zuzendu behar zaion nagusiaren izen-abizenak eman diezaioten. Udalak eskutitz bana bidaltzeko asmoa du, jaietarako baimen berezia eman diezaieten eskatuz.

3 LARUNBATA

• **ZINEA**
 "La última Seducción" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **ATZERATUEN ALDEKO KONTZERTUA**
 Atzeratuen aldeko kontzertua Amaia antzokian arratsaldeko 7etan.

• **ROCK KONTZERTUA**
 Arsenal, Pitxones, Xementerio eta Elkorobarrutia taldeen kontzertua, Andoaingo gaztetxean gaueko 8etan.

• **BIZIKLETA MARTXA**
 Arrasate- Oñati-Arrasate bizikleta martxa. "Trenbide zaharra erabiliz bidegorria erai-ki" lemapean, goizeko 10etan irtengo du martxak herriko plazatik.

• **ARRATSALDEA PATINETAN IBAI-ARTE-KANTOLATUTA**
 Ibai Arte elkarteak antolatuta arratsaldea patinetan jaija herriko plazan 3.45etatik aurrera. Gazte zein nagusiek har dezakete parte.

• **BERGARAKO JAIAK**
 Goizeko 9etan XIV. Marrazki eta Margo lehiaketa librea. 4.30etan Pentekoste Feriako pilota partiduen hasiera, Udal pilotalekuan. 11etan Rock kontzertua Bidebarrin: Nuevo Catecismo Catolico, 6 Nemen 9, Fucking what! taldeekin. 11.30etan Basajaun taldearekin dantzaldia San Martin plazan

III. KIROL JAIJA DENONTZAT

III. Kirol jaija Labegarieta-ko kiroldegian ekainaren 17an arratsaldeko 4etatik 6.15etara.

4 IGANDEA

• **ZINEA**
 "La última seducción" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

• **GURUTZ SAINDAREN JAIJA ARAMAION**
 Gurutz saindaren mendian 12.30etan meza. Ondoren erromeria alai arratsaldeko 6ak arte, bertan taberna eta salda egongo da. Aixolako eta Arrixolako gazteriak antolatuta.

• **IBILALDIA SANTURTZIN**
 Arrasatek autobusak goizeko 9etan irtengo dira Zaldibaretik.

• **MENDI IRTEERA**
 Besaidek antolatuta Izpegi, Iparla eta Bidarrai-era mendi irteera goizeko 7etan Gari-baitik

• **ATZERATUEN EGUNA**
 Eguerdiko 12.30etan kalejira gaitero eta trikitilariekin. 2etan bazkaria Alkartu elkartean eta arratsaldeko 5etan jaialdia Monterronen

• **SAN ANDRESKO PARROKIAN MEZA**
 Eguerdiko ordubatean meza Ana Cresporen omenez.

• **ESKORIATZA- ARRASATE KROSA**
 Eskoriatzako plazatik goizeko 12etan hasiko da eta 12.30ak aldera Arrasateko Udaletxe Plazan bukatu. Ibilbidea 8 kilometrokoa izango da.

• **BERGARAKO JAIAK**
 Goizeko 9etan LX. Pentekoste txirrindulari lasterketa. 11.30etan Euskadiko XVIII. Dantza Askatuko txapelketa San Martin Plazan. 12etan Pentekoste Feriako pilota partidua Udal pilotalekuan. Gaueko 12etan Nueva Alas-ka taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

5 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"La última seducción" 7etan eta 9.30etan.
- **ZAHARREN ASTEA**
Iturbide egoitzan Ikastolako abesbatzak eta txistulariak arratsaldeko 6etatik 7.30etara.
- **BERGARAKO JAIK**
Goizeko 9etan entzierroa. 11.30etatik 13.30etara jolas parkea Seminarioko patioan. 12.30etan Eskoriatzako Musika Bandaren kontzertua Espaloian. Gaueko 11etan Tarantella kanp musikarekin dantzaldia Espaloian. 11.30etan Rock kontzertua: Balerdi Balerdi, Memphis Belle, Daxka taldeekin.

6 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"La última seducción" 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.
- **ZAHARREN ASTEA**
Txatxipen taldea arratsaldeko 6etatik 7.30etara Iturbide Egoitzan.
- **BERGARAKO JAIK**
Goizeko 9etan entzierroa Barrenkaletik Zezen plazaraino. 10etan Plater tiraketa San Juan auzoan. 12etan Aranzadi ikastolako dantza taldeen erakustaldia. 4.30etan Pentekoste Feriako pilota partiduen finalak Udal pilotalekuan. 10etan Trabuko taldearekin dantzaldia San Martin plazan. 12etan Bitorianatxoren igoera.

7 ASTEAZKENA

- **HITZALDIA**
Gaia: "Menopausia eta Minbizia-ginekologikoaren prebentzioa". Hizlaria: Lourdes Ariztizarri, ginekologoa. Famili eta Gizarte Hezketarako lokalean arratsaldeko 5etan.

8 OSTEGUNA

- **ZINE KLUBA**
"Europa Europa" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria: Agnieszka Holland. Sarrera: 300 pta. eta gazte txartelarekin 250 pta.
- **ZAHARREN ASTEA**
Goizeko 11etan Jose M. Astigarraga Parrokoaren hitzaldia, arratsaldeko 6etatik 7.30etara Arrasate Musikalen emanaldia.

ARRASATE KANTARI

Ekainaren 10ean Arrasate Kantari emanaldia Amaia antzokian gaueko 10etan. Aurkezlea Juanito Saizar izango da. Sarrerak salgai: San Andresko Azpilikueta harategian, Musakola eta San Andresko Gazte Txokoa, Hiren, Hostalean, Monte tabernan eta Xaramellan.

PINTURA ERAKUSKETA

Ekainaren 2tik 11ra Harresi aretoan. Famili eta Gizarte Hezketarako zentruko ikasleen lanen erakusketa. Ordutegia: egunero 6etatik 8etara eta larunbata eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

KIROL URPEKARI TITULUA

Ekainaren 19tik 25era Bergarako igerilekuan eta astebukaretan itxasoan egingo dira ariketak. 19, 20 eta 21ean arratsaldeko 7etatik 9etara Bergarako kultur etxean eta 22 eta 23an Agorrosingo igerilekuan ordutegi berean. Prezioa 34.000 pta Deba Garaiko edozein udal kirol Zerbitzuetako bazkideentzat, 38.000 pta. gainontzekoentzat. Informazio gehiagorako eta izena emateko dei egin Musakolako kiroldegira, telefonoa: 7904 27.

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Ekainaren 18an Haur Dantzarien eguna egingo da Arrasaten. Ume asko etorriko denez eta guztiak herriko familiekin bazkalduko dutenez, zuen etxeetara dantzariaren bat konbidatu nahi baduzue eman izena AED edota HIRE liburudendan.



ARRASATE - OÑATI

Lurrats elkarteak antolatuta Arrasate-Oñati-Arrasate bizikleta mar-txa egingo da zapatuan, "Trenbide zaharra erabiliz bidegorria erai-kiz" lemapean. Irteera goizeko 10etan herriko plazatik. Ibilaldiaren bukaeran bizikleta bat eta beste operari batzuk zozketatuko dira partaideen artean. Bertan banatuko dira zozketarako txartelak. Ohar-rrak: Zortzi urtetik beherako haurrik ez eramatea komendatzen da, arropa eta oinetako egokiak jantzi, ura eta ogitartekoak eraman. Ibilbidean hainbat atsedeen gune izango da. Kirol apur bat egin eta inguruak ezagutzeko aukera ederra duda barik.

DEBA GARAICO EDADETUENTZAT IV. KIROL JAIA

Ekainaren 9an Edadetuentz-at IV. Kirol jaia Elgetako kiroldegian. Jaia arratsaldeko 3retan hasiko da eta 7.30etan bukatu. Deba Garaiko edozein edadetuk har dezake parte eta partaide guztiak operari bana jasoko dute.

ZAHARREN ASTEA

Ostiral goizean Arrasateko Parrokoaren hitzaldia eta arratsaldean Zabale anaiak taldearekin dantzaldia Iturbide Egoitzan.

“4.000 pertsonen Frantziako sistema politikoak euskaldunekiko duen jarrera arrazista, antidemokratiko eta errepresiboa salatu du Parisko kaleetan, autodeterminazio eskubidea eta, euskal presoen egoera eta Frantziak GAL auzian duen erantzukizuna salatuz.

Eskuma eta ezkeraren arteko dialektikarekin, historikoki engainatu gaituzte. Gizarte zaharra birsortzeko bakarrik balio du, errealitatearen ikuspegi partziala eta faltsua ematen digu, dagoen zapalkuntza izkutatu eta justifikatuz. Aitzitik, emanzipaziorako erabili behar dugun zapaltzaile eta zapalduen arteko dialektikak, zapalduen benetako egoera azaleratzen duenak, mundu berri baten ateak zabaltzen dizkigu”.

Antxon Mendizabal “Tonino”, maiatzak 21

ARGIA

“Kaskoa beti, alkoholari alergia garagardotxoren bat ez bada, eta elkertasuna beraien artean. ‘Zuk ikusiko duzu’ esaten didate Arrasateko Motozaleen taldean, ‘autoak arazoezin, bide bazterrean, eta beste autoek paso egiten dutenez: motero bat beti geratzen da laguntzeko’.

Rafael Castellano, maiatzak 21.

egin

“Zerrajerako pabilioien 70.000 m², Deba erreka-ondoan kilometro baten luzeran eraikitakoak, gainbehera eta utzitako itxura agertzen dute nonahi. Kristal handiak piztuta, zikinkeria, erdoila eta lizunzeria metalez jabetzen hasi dira. Pizina, joandako garai aberatsen ikurra, orain deposito da, eta bertako ura, arkaziek galdutako hostoez berdetuta, sasiz estalita dago. “Igela”ren iturri famatuak ere, dagoeneko ez dakar urik.

Progresoaren eraginez, mundu hau desagertzeaz dago. Iraganaren altxorrak balira, momentuz, UCEM Cerrajerara eta Transformados Metalicos, daude salbu, langileek berreskuratuta”.

J. R. Goikoetxea “Ardotxi”, maiatzak 21.

egin**Zergatik biharko Arrasate-Oñati bizikleta martxa?**

1 994an “Maltzaga-Urbina” ardatzari buruz antolatutako ziren IPGak zirela eta, administrazioari adierazi genion beharrezkoa dela oinezkoentzako eta txirrindularientzako bidegorri bat egitea, zenbat eta lehenago hobe gainera. Ardatz horren parean eta, ahal dela, trenbide zaharraren trazatua erabiliz egin beharko litzateke bidegorria.

Gure bailarako 40 erakunde baino gehiagok sinatu zuten eskabidea, eta oso harrera ona izan zuen bai IGPetan bai Eusko Jaurlaritzan ere Josu Bergara garai hartako Garraio eta Bideetako Sailburuak ontzat hartzea lortu zuelarik.

Orduko agindua errealitate bihurtzeko hainbat harreman izan dugu Jaurlaritzarekin eta Diputazioarekin. Maltzaga-Urbina errepeidea proiektua erredaktatzeko deia egiten denean, bertan bidegorriaren proiektua sartzeko eskabidea egin genien bi erakundeei. Udalak eta Euskal Herriko Txirrindulari Elkarteak ere egin dute eskabide hori.

Eskabide hori indartzeko, -txirrindulari elkarte, zikloturista talde, ikastetxe eta beste hainbat elkartekin batera eta Arrasateko Udalaren laguntzaz- bizikletaz ibilaldi bat antolatu dugu.

Espero dugu martxaren arrakastak lagunduko duela Jaurlaritzara eta Diputazioa gai horrekin oraindik kontzienteago izan daitezen eta gure herri eta eskualdeetan oinez edo bizikletaz ibiltzeko problematikari berehala soluzio egokiak eman beharra bereganatu dezaten.

Zeu ere irakurle, bizikletazale bazara gonbidatzen zaitugu martxa honetan parte hartzea. Goizeko 10etan irtengo gara Herriko Plazatik.



Eukeni Olabarrieta
Lurrats-eko lehendakaria.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

Ibai Artek asmo berriak

Ibai Artek, elkarterako bakarrik lan egingo duen gerente komertziala eduki nahi du. Asmo horren berri eman zuten joan den ostegunean merkatarien elkarteak egin zuen Batzar Orokorrean. Gerentea kontratatzeko dirulaguntza eskatuko dute Jaurlaritzan.

Iazko balantzea ere egin zuten batzarrean eta erdialdeko merkataritzari buruzko ikerketa egin zenez, 94a garrantzitsua izan zela azpimarratu zuten. Batzarra Txalaparta elkartearen izan zen eta berrogeitamar dendari inguru bildu zen.

1.000 ume kirol proiektuan

94-95 ikasturteko kirol proiektuan, 1000 gazte inguruk parte hartu du. Zapatuan bukatu zen aurtengo kirol proiektua eta amaiera ekitaldian sariak eta opariak banatu zituzten arduradunek Iturripeko kiroldegian. Sariak ematerakoan jarrera, asistentzia eta sailkapena izan zuten kontuan. Proiektuko arduradunen berbetan, partaidetza handia izan denez, aurrikuspenak bete egin dira. Udarako, berriz, udako kirol eskola antolatu dute eta dagoeneko 200 gaztek eman du izena.



Zintzilikatuta gruan

Joan den ostiral arratsaldean, Gurea Zinemako orubean dagoen grua igo zuten bi mutil gaztek. Gruara igo zutenean, bertan "Zipaioak Txakurak" idatzita zuen pankarta zabaldu zuten. Ordubete inguru egon ziren goian eta tarte horretan noiz jeitsiko zain egon ziren ertzainak. Behin behean, ertzaintzak dokumentazioa eskatu eta gero joaten utzi zituen. Bi gazteak atxabaltarrak eta 18 urtetik beherakoak dira.



Carmina Burana arrakastatsua

Domekan eta astelehenean erabat bete zen Amaia antzokia. Bi egun horietan, Carmina Burana obra eskaini zuten Mondragón Abesbatzak eta Errusiako orkestra nazionalak eta bertan izan zirenen esanetan, kantariak eta musikako ezin hobeto aritu ziren. Emanaldiak bi ordu iraun zuen eta Carmina Buranarekin hasi baino lehen, orkestrak Mozarten obra batzuk eskaini zituen. Ondoren, 140 kantari eszenatokira igo eta Jesus Maria Etxebarriaren zuzendaritzapean, Carmina Burana kantatu zuten.

Bonba mehatxua Amaral enpresan

Astelehenean, arratsaldeko bostak inguruan, ezezagun batek Arrasateko ertzaindegira deitu zuen, Erguingo "Amaral" erakuntza enpresan bonba batek eztanda egingo zuela esanez. Ertzaintzak enpresako langileei irteteko eskatu zien eta denbora bat itxaron ondoren, enpresa miatu eta bonbarik ez zegoela ikusi zuten.

Mehatxua nork egin zuen ziur jakin ez arren, aldikako kontratuaz lanean egondako norbaitek deituko zuela uste dute enpresakok.

JAIOTZAK

- Mirari Romero Villaberde. Maiatzaren 19an.
- Noelia Merino Moto. 18an.
- Miriam Barriocanal Monjelos. 21ean.
- Markel Abellaniz Otxoa de Retana. 22an.
- Maider Urrutia Garcia. 23an.
- Mikel Ugarte Ijurma. 24ean.

HILDAKOAK

- Jesus Madina Orueta. Maiatzaren 20an. 58 urte.
- Tomas Juaristi Arregi. 21ean. 76 urte.
- Felix Urrutia Orobengoa. 20an. 49 urte.
- Antonio Bedia Arregi. 21ean. 75 urte.
- Domingo Gonzalez Medrano. 21ean. 79 urte.
- Maria Zumalde Zumalde. 25ean. 79 urte.

UDA KO Ikastaro Intensiboak 95

AKADEMIA **BASTIDA**
INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorb., 3 - 1.a
Arrasate
Tel.: 79 32 16
Fax: 79 06 28

OINARRIZKO OFIMATIKA

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

KONTABILITATEA

ZERGA GESTIOA PYMEetan

GIZA ERREKURTSOEN ADMINISTRAKETA

MEKANOGRAFIA ORDENAGAILUZ

EUSKERA

INGENIERITZA TEKNIKOA

LAGUNTZAKO KLASEAK

ABUZTUAN ERE PRESTATZEN DA



* Mattin Amundarain

Borondateak batzen gaitu

Sobera ezagunak ditugu urruntzen eta banatzen gaituztenak. Egin ahal dezakegu ahaleginik batzen eta elkartzen gaituena zehazteko? Jarraian dauden 8 ideia horien inguruan -geure gizartearen egungo borondatea isladatzen dutelakoan- hausnarketa sakona bultzatu nahi du Elkarrik kaleratu berri duen kanpaina berriarekin.

1.- Geure gizartean ditugun arazoendako konponbide demokratikoak bultzatzeko borondatea.

2.- Bortxakeria guztiak bukarazteko borondatea.

3.- Elkarrizketa bidezko konponbideak bultzatzeko borondatea, baita elkar ulertzeko eta distentsiorako esparru sozial eta politikoak sortu eta finkatzeko ere.

4.- Edozein helburu politiko bide demokratikoetatik

defendatu eta lortu ahal izateko, bide juridiko eta politikoak irekitzeko borondatea.

5.- Euskal Herriaren geroa erabakitzerakoan, gehiengoaren nahia onartzeko borondatea.

6.- Nafarroa, Euskal Autonomi Elkarte eta Iparraldearen artean erakunde, gizarte, ekonomi eta politika mailako harremanetan adostasun handiagoko bideak bilatzeko borondatea, baita eskualde horietako bakoitzeko herritarren erabakia errespetatzeko ere.

.....
“Arrasaten 50 lagunengana ari gara zuzentzen, herrian ezagunak izateagatik aukeratuak izan direnak”

7.- Giza eskubide indibidual eta kolektiboaren defentsan sakontzeko borondatea.

8.- Gatazkaren ondorio mingarrienak biguntzen eta gozatzen hasteko borondatea.

Ideia hauek ez dute azken akordio bihurtzeko asmorik, baizik eta alde aurreko borondate topaketa adierazi nahi dute. Oinarrizkoak eta integratzaileak diren ideiak aukeratu dira, adostasuna bultzatu eta bake prozesuan jarraipide baliagarriak eskaintzearen.

Kanpaina gizarte osoari zuzenduta dago, baina lehen fasean Euskal Herriaren ezagunenak diren 6.000 lagun ingururi zuzendu gaitzaizkie. Arrasaten 50 lagunengana ari gara zuzentzen, herrian ezagunak izateagatik aukeratuak izan direnak.

Erantzen guztiak jaso ondoren Arrasateko Borondate Kontratuta sortzea da helburua, 8 ideia horrek oinarritzat hartuta, gutxieneko adostasun puntuak zertan gelditzen diren jakiteko aukera izango dugularik.

Jakina da beste gatazka batzuetan ere, bakearen aldeko bidean gizartearen partaidetza aktiboa guztiz erabakiorra izan dela. Beraz, helburu hori lortzeko baliabiderik onena gure herriko gizon-emakumeen borondate demokratiko eta integratzaileak zehaztea nahi eta nahiezkoa izango delakoan, egin dezagun ahalegin zintzo bat, elkartzen gaituena indartzen.

* ELKARRIKO KIDEA

ANDER ETXEBERRIA

USTEAK USTE

EKAINA

Iritsi da ikaslearen-tzako hainbeste buruhauste dakarren hilabetea. Azterketak gainean ditugu dagoeneko. Batzuk bat bakarra izango dute, mamu beldurgarri lez aurkezten den hautaprobea edo selektibitatea, hain zuzen ere. Beste batzuk berriz examina mordoska bat, zortea izanik San Juanak baino lehenago burutuko dituztenak. Batean zein bestean liburu edoeta apunteen aurrean orduak eta orduak emango ditu gazteak (edo eman beharko, onik irten nahi izanez gero) eta bere bizimodua egun horietan zertxobait aldatuko da, txarrerako ziur aski.

Komunikabideetan, noiz edo noiz marathoi-lariaren bakardadea edo beste kirol edo lanbide gogorren bat aztertzen duten programak izaten badira ere, azterketa garaietako ikaslearen bakardadea honetaz ez dut gogoratzen noizbait horrelako saio serioirik ikusi edo irakurri dudarik. Mundua nagusia denez gero nola jardungo dute ba horrelako gaiez? Honetaz, beste gauza askotan bezala, ardura gehien agertzen duena ama da... Tira, aurrera lagun, itxuraz ezina zena bultza eta bultza egin da dena!



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
 Tfnoa: 79 13 05 • Faxe: 79 13 84



- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!


Larrea enparantza, 5 behea Tfnoa: 77-01 69

Goiko aginduen zain J. M. Loitik alkatetzarako aukera gehien

Udal gobernu taldea osatzeko, badirudi hirukoa gauzatuko dela herrian ere. Alderdien gidaritza eramaten duten agintariek gero eta garbiago hitzegiten dute aukera horri buruz eta era horretan, Arrasaten ere 12 zinegotzirekin EAJ, PSE-EE eta EAK aginduko lukete, alkatea Jose Mari Loiti izanik.

Herriko politikoak bitartean, goitik etorriko den aginduen zain daude eta horregatik, oraingoz inork ez ei du "fitxarik mugitu". EAKo I. Gallastegik adierazi duenez, goitik aginduren bat etorri arte, ez dute beste alderdiekin elkarrizketetan hasteko asmorik. EAJko J.M. Loitiren esanetan, agintariek esango dute udaletan zein gobernu osatu behar den. "Hirukoaren aukera hor dago eta hori gauzatzen bada inor ez da engainaturik sentitu behar, aukera horrek aurrera egin zezakeela nahiko argi zegoen eta". PSE-EE alderdiko I. Jimenok ere burukideen agindua itxaroten ari direla adierazi du. "Gure asmoa gobernu taldean egotea da eta horretarako lau urterako programa egin beharko dugu gainontzeko alderdiekin." Jimenoren iritziz, politikok hartu behar dute Udaletxearen zuzendaritza. "Ardurak banatzea da nire proposamena. Alkateaz gain, hiru edo lau zinegotzi liberatu beharko lirake, politikok ere agindu dezaten". Kaleko zurrumurruek ere, zinegotziak liberatzearen asmoa errotuta dagoela esaten dute.

HBko X. Zubizarretak, alderdiekin kontakturik ez dutela hasi baina euren asmoa alkatetzari eustea dela adierazi digu eta horretarako ego-



Normaltasunez egin ziren domekan udal hauteskundeak.







kiena, azken lau urteetako formula errepikatzea da Zubizarretaren iritziz. Emaizten eta egoeraren balorazioa egiteko, herriari zuzendutako gutuna

kaleratuko du HBk datorren astean. Hauteskunde osteko egoeraren balantzea egiteko, ostiralean asanblada egingo du Arrasateko Ezker Batuak.

Zapatuan, berriz, kontseilu politikoa bilduko da Bilbon. Bilera horretan zein bide jarraituko duten eta HBrekin harremanik egin ala ez erabakiko dute. J. Ugalderen esanetan, "hobe da HB kanpoan ez uztea, gainera Arrasaten gorakada izan du eta hori kontuan hartu behar da. Alde batetik esaten da HBk joku demokratikoan parte hartu behar duela eta kanpoan utzita gatazka areagotu baino ez dugu egingo". PPko A. Palacios-ek, berriz, hirukoari laguntzarik ez diola emango adierazi du. "Besterik gabe erabat artifiziale den hirukoari ez diot aldeko botoa emango, guk ere gure ideiak ditugu eta jendeak horiek aurrera eramateko eman dit botoa".

Auzia ekainaren 17an argituko da. Orduan udalbatza berria batuko da eguerdiko 12etan, datozen lau urtetarako alkatea aukeratzeko. Udalbatza egin ondoren bazkaria izango dute, zinegotzi izandakoak eta izango direnak.

Udal Hauteskundeetako emaitzak


	Botoak	%	Zinegotziak
Hautesleak	20.293	100	
Abstentzioa	7.068	34,83	
 HB	3.535	27,29	6
 EAJ	2.823	21,79	5
 PSE-EE	2.530	19,53	4
 EA	2.011	15,52	3
 IU-EB	1.129	8,71	2
 PP	974	7,52	1

Baserri auzoetako bide zaharren nondik norakoak

Herriko bide zaharrei buruzko lana bukatu du Gotzon Arzelus bergararrak. Herrian dauden eta izan diren bideen izenak, bide horiek nondik igarotzen ziren eta bideekin zerikusia duten anekdotak jasotzen dira txostenean. Gainera, bide bakoitzaren funtzioa ere zein zen azaltzen da eta erabilera-aren arabera bide bakoitza zer zen: burdin-bidea, manda-bidea, kurtzebidea, erregebi-dea edo zorbidea.

Bukaeran, berriz, bost ibilbide proposatzen ditu eta horien nondik norakoak ere azaltzen ditu argazki eta planuez lagundurik. Horrekin lagundurik, ibilbidean zehar zein landare ikus daitezkeen eta geologia aldetik gauza azpimarragarrienak azpazten dira. Ibilbide motzena bost kilometrokoa da eta luzeena hamarrekkoa. Arzelusen esanetan, "lanaren helburua kultur ondarea jasotzea da. 60. hamarkadan etxeak eraiki edo errepideak zabaldu dira eta ondorioz, hainbat bide galdu egin da. Oinez ibiltzeko baino izan ez arren, orain interesgarriena jendeak bide horiek erabiltzea litzateke". "Bideak oso garrantzitsuak izan dira, jendea elkarren artean komunikatzea eta ekonomia nahiz kultura garatzea ahalbidetu dutelako" gaineratu zuen egileak.

Jendeak pasiatzeko tokiak eskatzen dituzenez eta horretarako toki gutxi dagoenez, aurkezpenean lanari buruzko gida bat kaleratzea proposatu zuen Arzelusek. Hala ere Udalak ez du horren gainean ezer erabaki eta



Gotzon Arzelusek 22 urte ditu eta Turismoa ikasi zuen Donostian.

lanaren berri izan nahi duenak, Udaletxeko artxibategian aurkituko du kopia bat.

Enplegua sustatzeko Diputazioak ematen duen dirulaguntzaren bidez, Arzelusi sei hilabeteko kontratua egin zion Udalak ikerketa hori egiteko. Asteazkenean, egindako azterketaren aurkezpena egin zuen Udaltxean.

Udal plenoa

Astelehenean, udalbatza bilduko da adostu barik geratu diren gai batzuk erabakitzeko. Kultur arloko gaiei dagokienez, zikloturistei lokal berria emateari buruz hitzgingo da. Lokal berria epaitegiaren inguruan dago baina berri egin beharko denez eta horretarako diru kopuru bat zuzendu beharko denez, udalbatzak onartu beharko du lagapen hori. Museo industriale-rako, Cerrajerak utziko dituen makina eta tresnen berri ere emango da besteak beste.

Txirrindularia bota eta ihes egin


Kamioi batek txirrindulari bat jo eta bota egin zuen asteazken eguerdian, Arrasate Bergarara bidean. Kamioiko gidariak ihes egin zuen baina Ertzaintzak Areitiorako bidean aurkitu zuen eta Eibarko ertzaindegira eraman. Gidariak txirrindularia bota zuenik ez zekiela esan zuen eta alkoholemia probetan ere negatiboa eman zuen. Txirrindularia Iker Z.T zumarragarra da eta eskualde ospitalera eraman ondoren, Santiañgora eraman zuten.

ARRASATE TELEBISTA

ATB Berriak: Informatiborik ikusia

Publizitatea: ☎ 77 08 15

Elektroinjekzio
Zerbitzua




ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**




Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

la dena gertu dago aurtengo San Juan jaietarako

Hogei egun inguru falta dira San Juanetarako eta jai egitaraua ia lotuta dago. Aurrekontua ere astelehenean finkatu zen, 13.170.000 pta. gastatuko dira aurten.

Ez dago nobedade handirik San Juanetako programan. Hala ere bada zer aipaturik. Arrasateko erraldoi eta buruhandien konpartsak aurten hamar urte beteko dituzenez, urteurrena behar bezala ospatzeko ekintzak antolatzen ari da konpartsa. Horretaz gain, Arrasateko bandaren aurkezpena ere egingo da, aurtengoa herriko jaietan joko duen lehen aldia izango da eta. AED, ARKO, Ekin eta Txatxikipurdi elkarteek zabaldu asmo duten taberna aipa daiteke. Bertso eta trikiti saioak egingo dira AEDk antolatuta eta baita herri kirolen ikuskizuna ere.



Leire Zubikarai arrasatearraren kartelak iragarriko ditu jaiak.

ARKO-k, berriz, karaoke lehiaketa eta euskal instrumentuen emanaldia eskainiko du telebistaz besteak beste.

Errementeri dantza nork dantzatuko duen oraindik ez da ezagutzen, baina Udala eta kultur taldeen artean egindako bilerak bide onetik joan direnez, dantza hori egitarau ofiziaaren barruan dantzatuko dela espero da. Orain dela bi urte moduan, berriz, ez da kuadrila komisiorik bildu edo udalari behintzat ez diote bilerarik egiteko asmorik adierazi. Urtero bezala zezen plaza ere jarriko da Lau Bide inguruan.


Aurten San Juanak astebukaeran burutuko dira. Hori dela eta, kooperatibetako langileek ez dute jai egun asko izango eta kanpora jende gutxiagok irten-go duela espero da.



Arrasatek eman du hitza

Aurrera bolie!!

HERRI BATASUNA



San Juanetan euskera darixola zure ezpanetan

“San Juanetan euskera darixola zure ezpanetan” lemapean pegatina aterako du AEDk San Juan jaietarako. Irrifar sensual honek euskaraz hitz egiteko konbitea egiten digu. Aprobetxatzea da gure aukera!



Anne Igartiburu Arrasate izan zen ostiralean. Tamayok urtero antolatzen duen idaz-

kera lehiaketan bera agertuko da eta argazkiak ateratzera etorri zen.



Sevilla, Cordoba eta Granadan izan ziren Arrasate, Aramaio eta Eskoriatzako 42 emakume apirilaren 28tik maiatzaren 1era. Emakume taldea Sevillako ferian izan zen eta primeran pasa zuten.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAETA

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

HIES EKIMENA
Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.
Tfnoa: 79 26 99

Txitxinpe
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

IZEN PROPIOAK



Deba Garaiko jubilatuek esku-lanen erakusketa jarri zuten Montteronen. Astelehenean erakusketa-aren azken eguna zela eta, ekintza berezia izan zuten. Alberto Garcia

Gipuzkoako jubilatuen elkarteko presidentea bertan izan zen erakustaldiari amaiera emateko. Ondoren jubilatuek guztiek Batzokian izan zuten luntxa.

● **Jose Mari Astigarraga** Arrasateko Parrokoa Deba Garaiko Artzizpreste berria da. Jose Mari 56 urte ditu eta Elgoibarkoa da.

● **Leire Zurikarai** 23 urteko arrasatearra San Juan jaiak iragarriko duen kartel lehiaketaren irabazlea izan da. Leirek Arte Ederrak ikasten ditu Leioan.

● San Juanetako tanborradako pertsonaiak dagoeneko ezagunak dira: generala **Jon Ander Ormaetxea** izango da. Arrasateko bandera **Naiara Arkautzek** eramango du, Ikurrina **Araitx Etxabek** eta SUDCeko bandera **Maialen Morenok**.

Lore Gazteak dantza taldeko dantzari nagusienek arropa berria estreinatu zuten Bergarako dantzari egunean. Bi urte ibili dira arropa berria zela eta ez zela, baina azkenean estreinatu ahal izan dute. Arropa oso polita da eta enteratu garenez orain hobeto egiten dute dantza. Hori bai suertie!



“EDERTU”
ileapaindegia eta solarium-a




San Andres auzoa • Tfnoa: 79 04 28 ARRASATE

BITTORI
ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua
Especialitateak: legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tfnoa: 79 55 82



Arrasateko OSASUN GIDA

ALBAITARIAK

ALTAMIRA KLINIKA J.L.Iñarra, 24-Behea ☎79 74 89
ZARUGALDE KLINIKA Zarugalde, 25 behea (24ordutan) ☎79 15 31

ALERGIA ETA ASMA

ATXEN ARANZABAL Olarte, 43..... ☎79 81 00 / 79 81 11

DENTISTAK

ADUR MEDIKU INSTITUTU ODONTOLOGIKOA Iturriotz 35 ☎79 95 60
ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz 17,1 Ezk..... ☎79 72 23
ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea..... ☎79 71 90
GIPUZKOA ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETAKO ZENTRUA Iturriotz 7 Bis..... ☎79 73 88
IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz 7, 1º..... ☎79 69 45
LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3 1.-B ☎77 12 63

DIETETIKA ETA NUTRIZIOA

SERRANO DOKTOREA Kalealdea, 11- behea (Asteazkenetan) ☎79 65 78

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETxea ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎77 03 96

GINEKOLOGOAK

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA Zerkaosteta,17-Behea ☎79 20 18

LOGOPEDIA

ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Zurgin Kantoi 3-Esk ☎79 79 46
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

MASAIARIAK

EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk ☎77 06 22

MEDIKU-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎79 44 22

OPTIKA

ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño,6 ☎79 25 98
GARAGORRI OPTIKA (Optika eta optometria) Iturriotz 29..... ☎79 16 98
LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎79 29 95

PODOLOGOAK

BARRUTIABENGOA URANGA Pablo Uranga, 6 ☎79 50 75

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ MONREAL Olarte, 10 ☎79 88 16
PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga 10 ☎79 48 77

REUMATOLOGIA -BIZKARREZURTERAPIA

GOROSARRI-TROJAOLA Dreak. Zaldibar 1, 1..... ☎77 00 40

Futbito 94-95

ZALDIBAR
KO
TXAPELKETA

Babesleak: JMA, Kajoj taberna eta Arrasate Kirolak



Finalerdiak jokuan astebukaera honetan

Final laurdenetako neurketak jokatu ziren astebukaeran eta ezusteak egon direla aipatu behar. Argi ibili Zuloaken kontra penaltietan 3 eta 2 galdu eta gero, txapelketatik kanpo geratu da. Trikitik ere ez du zorte handirik izan eta Adelaida Haizea nagusitu zen norgehiagokan. AC Surcos eta Cerveceria Leintzen arteko neurketan talde bakarra egon zen kantxan, Cerveceria Leintz hain zuzen ere. Cerveceria Leintzekoak galtzen hasi arren, buelta eman zioten neurketari eta 7 eta 1 irabazi zuten

merrezimendu osoz. Azken partiduan Fosforosek eta Suministros Ugartek neurtu zituzten indarrak eta Fosforosek 3 eta 2 irabazi zuten ondo jokatu barik.

Une honetan lau talde geratzen dira final erdiak jokatzeke eta bi partidu jokuan. Irabazleek finalerako txartela eskuratu dute eta final handia ekainaren 10ean jokatuko da.

Ia ohartu barik Zaldibar txapelketa azkenera heldu da eta gertzen diren bi jardunaldiak hil ala bizikoak izango dira parte hartzen ari diren taldeentzat.



Felipe
Arrizabalaga
AROSZTEGIA

- SUKALDE-ALTZARIAK
- SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
- ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

ZALDIBARKO EMAITZAK

Zuloak 3 - Argi Ibili 3 (Penaltietan 3 eta 2)
 Trikiti 2 - Adelaida Haizea 3
 AC Surcos 1 - Cerveceria Leintz 7
 Fosforos 3 - Suministros Ugarte 2

ASTE BURU HONETAN ZALDIBARREN

Larunbata 3

Zaldibar

12.00 Fosforos- Adelaida haizea

Igandea 4

12.00 Zuloak - Cerveceria Leintz



ASTEBURU HONETAN URIBEN

Larunbata 3

Iturripe A

11.00 Lautherbrunnen - Sukar
 12.00 La Banda - Leya
 13.00 Orkatz - Los Intocables
 14.00 Eman Bidea - Garajauke
 15.00 Telleria Auto eskola - Hirei
 16.00 Blackburn - Baneuko
 17.00 Txeyenex - Berango sukaldeak
 18.00 Arrasate Kirolak - Pier Nodoyuna
 19.00 Holokaustro Kanibal - Energizer

Iturripe B

12.00 Eztanda egin arte - Amaral
 13.00 Gazte Txokoa - Balon Rojo
 14.00 The Barrio - Extintors Foruen
 15.00 Uglys Txinato - Los Dimy
 16.00 Kamasutra - Ganbelas
 17.00 Salenco y Konpañia - Bodega Anboto
 18.00 Berza Mutante - Munar Txiki
 19.00 Gallinero - Euskal Suporters

Igandea 4

Iturripe A

11.00 Borrock 'N Roll - D.K.B
 12.00 Ke Oxtias - No Comment
 13.00 Borrock 'N Roll Promesas - Dribling

Iturripe B

11.00 Jotakabau - Tronkoteak
 12.00 Astoen Bila - Arrasate Zoo
 13.00 Exca. Lete - A Las 9 No

Nesken txapelketa



Txakolintxintxau eta Las Mels, sailkapene-ko aurreko postuetan dauden taldeek partidu bizia jokatu zuten zapatuan eta Txakolintxintxaunek 5 eta 3 irabazi zuten. Zazpigarren jardunaldian zenbait arazo izan zen jokalaria eta epaileen artean. Hori dela eta, antolatzaileek garbi utzi nahi dute jolas bat baino ez dela futbitoa eta ondo pasatzeko elkartzen direla zapaturu.

HURRENGO PARTIDUAK

Ekainak 3

9.00 Karpe Diem - Zepaesstandon
 10.00 Las Mels - Zure Atzetik
 11.00 Joixon Bertan - Izenbakuak
 12.00 Ireklas - Txakolintxintxau
 13.00 Orkatz - B.G
 17.00 Orkatz - Karpe Diem

Ekainak 9

19.00 Izenbakuak - Zeppaesstandon.

Sailkapena

	Partidua	Alde	Kontra	Puntuak
Txakolintxintxau	7	46	10	14
Las Mels	7	55	13	12
Izenbakuak	6	28	17	8
Orkatz	6	31	19	8
Zepaesstandon	6	29	20	8
Joixon Bertan	7	33	30	7
Zure Atzetik	7	10	29	5
Ireklas	7	8	28	4
B.G	7	7	56	0
Karpe Diem	6	5	29	-11

BELARRIRA

◆ **Trofeoak eta Urdaiaz-pikoak ikusgai:** Zaldibar txapelketako trofeoak finala jokatu arte Udaletxean izango dira ikusgai astelehenetik aurrera.

◆ **Atsedena:** Uribe Auzoa txapelketan CD Arko, Trotabares, Equis BTR, Koka Juniors, Lo + X, Iluna Taberna eta Elisabeth taldeek atsedena izango dute datorren jardunaldian.

◆ **Kanporatua.** Corazon de Encina taldea ez zen aurkeztu 10. jardunaldian eta Uribe Auzoa txapelketatik kanpo geratu da. Une honetan, 53 talde geratzen dira txapelketan.

◆ **Azken jardunaldia.** Uribe auzoako txapelketan lehen faseko azken jardunaldia jokatuko da asteburkaeran. Ondoren, kanporaketak hasiko dira. Talde bakoitzeko lehenengo bostak eta bigarren hiru onenak izango dira zerrandaburu. Zortzi talde guztira eta zozketen bidez osatutako dituzte talde berriak. Kanporaketak partidu bakarrera jokatuko dira.

Zuloak eta Adelaida-Haizea final erdietara

Zuloak eta Argi ibili

Zuloak eta Argi ibili taldeen arteko partidua lehiatsua bezain bizia izan zen. Talde biek ez zuten amore eman azkenerarte eta ikusleek joku ona ikusteko aukera izan zuten. Argi Ibili taldeko Fede jokalaria lan bikaina egin zuen eta Terik ere urrezko aukera galdu zuen une erabakiorretan. Jokatu beharreako jokatuta hiruko berdinketa nagusitu zen markagailuan. Berdinketa hausteko luzapen minutuak jokatu zituzten baina hor ere ez zen



kanporaketa erabaki eta penaltietara jo behar izan zuten bi taldeek. Penaltie-

tan Zuloakek zorte hobea izan zuen eta 3 eta 2 nagusitu zen.

Trikiti eta Adelaida Haizea

Trikiti eta Adelaida Haizea izan genituen aurrez aurre zapatuan eguerdiko 12etan. Neurketa nahiko ona izan zen eta gol aukerak ugaria. Adelaida Haizea bi goleko abantailaz aurretik jarri zen markagailuan baina bigarren zatia bukatu baino lehen, Trikitik berdindu egin zuen. Berdinketa markagailuan eta luzapenera jo behar. Bertan, Adelaida Haizeak hurrengo faserako txartela lortu zuen sartutako golari esker. Trikiti faboritoa zirudiena, beraz, final laurdetan kanpoan geratu zen.



ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLAK

aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzako titulu berriak.
- Hainbat arlo ezagutzea: haur hezkuntza, ingelesa, hezkuntza musikala, teknologia berriak, euskara...
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

Informazioa:
IRAKASLE ESKOLA
ESKORIATZA
Tfnoa: (943) 71 41 57

1995-6 ikasturterako
aurreinskripzio-epaia
zabalik dago




Kalitate gorena leihoretan

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

Eskerrik asko
ARRASATE!!



● *Leonor Astigarraga*

Elikadura erakusgai karpapean

940 m²ko karpa batean, elikadurari buruz jakin beharreko guztia jarri du ikusgai Eroskik. Zer jatea komeni den, hemendik urte batzutura nolako produktuak kontsumituko ditugun eta sukaldean zein ohitura diren komenigarrienak ezagutzeko aukera ematen du erakusketa. Leonor Astigarraga kontsumo teknikariak azaldu digu erakusketa-ren nondik norakoak.

- Zein da erakusketaren helburua?

- Eroskiko kontsumo departamenduak urtean zehar ekintza batzuk antolatzen ditu, formazio eta informazioaren inguruan eta erakusketa ere hor sartzen da. Erakusketa ekintza garrantzitsuena litzateke, aurrekontu handiena izateaz gain, jende gehien erakartzen du eta. Helburua herri-tarrei janaria, osasuna eta elikaduraren teknologiar buruzko informazioa eta formazioa ematea da. Aurrez beste bi erakusketa antolatu genituen, biak ingurugiroari buruzkoak baina ez ziren azken hau bezain handiak izan. Hirugarren hau, eduki aldetik osatuagoa da eta erakusketa ere ikusgarriagoa da.

- Orain arte zein tokitan jarri da erakusketa?

- Iazko azaroan estreinatu zen erakusketa Iruñean, gero Bilbon izan zen, handik Gasteiza joan ginen, martxoan Donostian izan ginen eta handik Barakaldora. Orain arte 130.000 lagunek ikusi dute erakusketa. Arrasaten 15.000-20.000 lagun inguruk bisitatuko dutela espero dugu.

- Bide batez publizitatea ere egiten duzue, ezta?

- Helburua ez da hori, kontsumitzaileei informazioa ematea da asmoa. Kontuan izan behar da, Eroski bataketa enpresa, kontsumo kooperatiba eta kontsumitzaileen taldea dela eta gu azken arloan sartuko ginatke. Hala ere, gura edo ez, Eroskiren ize-na dago atzean eta horrek eragina izan dezake.

- Zer ikus daiteke erakusketan?

- Hiru atal desberdin ditu. Lehena elikadura, osasuna eta nutrizioari buruzkoa da eta batez ere ikasleei zuzenduta dago. Atal honetan, janari desberdinek zenbat kaloria duten eta dieta orekatua zein izango litzatekeen jakin daiteke besteak beste. Bigarrena nagusiagoentzat da, garbitasuna eta manipulazioari buruzkoa.



Azkena, berriz, etorkizuneko elikaduraren ingurukoa da. Erakusketan ematen den informazioa ulerterreza baina nahiko orokorra da. Horregatik, elikaduraren ganean jakitunak diren hainbat lagun daude bertan, edozein zalantza argitzeko gertu.

- Zelakoa izango da etorkizuneko elikadura?

- Kontsumitzaileek janari naturalak, freskoak, produktu kimiko gabekoak eta kaloria gutxiak eskatzen dituzte. Hori da joera eta enpresak horrelako produktuak ateratzeko ikerketak egiten ari dira.

- Eta etorkizuneko sukaldaritza?

- Teknologia berriak batez ere sukaldean pasatzen dugun

denbora murriztera datoz. Gaur egun emakumeek ere kanpoan egiten dute lan eta ez da lehen adina denbora pasatzen sukaldean.

- Mikrouhina gero eta gehiago erabiltzen da. Zeintzuk dira aparailu horren abantailak eta desabantailak?

- EEBBtan azken 30 urteetan mikrouhina ona ala txarra den polemikarekin dabil-tza eta oraindik ez dute frogatu ondorio txarrak ekar deza-keenik. Mikrouhinak ez du minbizirik eragiten; alde-rantziz, janariaren bitamina guz-tiak gordetzen ditu.

- Zein izango litzateke dieta orekatua?

- Denetik jatea baina neurrian. Denetik jan behar da, baita ogia ere.

● **“Orain arte 130.000 lagunek ikusi dute erakusketa, Arrasaten 15.000 bisitari inguru espero dugu”.**

Arrasate

Egunkariazaleen

bilgune

Itxaro Zubillaga

Euskaldunon Egunkariako festaren eszenatokia izango da Arrasate ekainaren 11ean. Arrasatek azken urteetan erakutsi duen euskalzaletasuna eta elkarlanerako gaitasuna erabakiorrak izan dira Egunkariakoek herria horretarako aukeratzeko.

Egunkaria festa Usurbilen burutu zen orain 4 urte estraineko aldir. Euskara hutsezko eguneroko prentsaren ordezkarri bakarrak pairatzen zuen premia ekonomikoari irtenbide bat emateko antolatu zen: diru premia zeukatelako eta bide batez horrelako proiektu batek instituzio publikoen laguntza behar zuela aldarrikatzeko. Hurrengo urtean Iurretak hartu zuen lekukoa eta iaz Amasan egin zen. Dagoeneko lau urte pasa dira Egunkariako lehen festa antolatu zenetik eta tarte horretan Euskaldunon Egunkariak merkaturan leku bat hartzeaz gain, instituzio publikoekin elkarlanari ekiteko akordioa sinatu du. 1994an Egunkariak eta Eusko Jaurlaritzak elkarlanerako akordioa sinatuz, landu edo sakondu beharreko bide bati eman zioten hasiera. Egunkariako ordezkariek, dena



Festa giroa izango da nagusi ekainaren 11ean Arrasaten.

dela, Jaurlaritzarekin sinatutako akordioak ez dituela Egunkariako beharrak betetzen diote "70 milioiko diru laguntza emango digute baina hori ez da ezer egunkari batentzat, Joseba Arregiren proiektuan 900 milioko diru laguntza ematea aurrikusten zen. Beraz, atera kontuak"

Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanerako akordioa sinatu arren Egunkariak ez du diru arazoa gainditu eta eurek dioten legez urrats txiki bat baino ez dute eman. Festa antolatzeak dirua lortzeaz gain, beste zentzu bat ere badu "proiektua gizarteratu nahi

Datorren astean txoznak jartzen hasi behar dira eta laguntza behar dute. Hori dela eta, arrasatear guztiei konbitea luzatzen zaie laguntzeko prest egon daitezen.

dugu jendearen parte hartzea lortzeko eta herritarrak Egunkariako partaide izan daitezen. Orain arteko esperientziak positiboak izan dira eta jendeak ondo erantzun du". Arrasaten burutuko den festan 25.000 pertsona espero dute.

FESTAREN NONDIK NORAKOAK

Arrasate festa antolatze-ko toki egokiena izan zitekeela erabaki ondoren Egunkariako ordezkariek ideia azaltzeko AEDrekin jarri ziren harremanetan. AEDren oneritza jasota Udalerako josten eskatu beharreko baimenak

EDURNE KOCH

eskatzera eta Udalak ez zien eragozpenik ipini. Baldintza bakarra festaren aurreko egunetan euria egingo balu Monterron parkea ezingo dela erabili, balio botaniko handia duelako.

Baimena eskuan Ainhoa, Pello eta Kike festaren egitaraua antolatzen hasi ziren. Festa hiru gunetan egongo da kokatuta. Monterrongo parkea gazteentzat, nagusien gunea Otalora kalean eta gaztetxoenena Kondekuan, Monterron azpiko zelaian. Maalatik Muxibarreraino itxita egongo da kalea eta aurreko egunean inguruko bizilagunek aparkalekuetatik kotxeak kendu beharko dituzte.

Herriko zenbat kale itxita egongo denez, aparkaleku batzuk egokitu dituzte domekarako: Musakola kiroldegikoa, Maxi eroski, Estazio Zaharra, San Andresko Eskatu Pablioi aparkalekua, Caja Labo-rakoa, Fagor San Andresen dagoena, Iturripeko Kiroldegikoa eta Loramendi kalean eta baita laubideko aparkalekua ere. Guztira, 3.326 ko-txeentzat lekua egongo da.

EGITARAUA

Musika eta ekitaldi desberdinez gain, festa gunetan 6 txozna jarriko dira, hiru Monterronen eta beste hiru Otalora kalean. Material salmenta egiteko ere txoznak izango dira eta baita borondatezko sarrerak erosteko ere. Gaine-

ra, bost Euskal banketan diru trukaketa egiteko aukera dago, Lizardiak trukaketa dira eta ekintza guztiz sinbolikoa den arren, jaiari euskal giroa emateko balioko du. Egitarau zabalena egiten saiatu dira "Adin desberdinak hartu ditugu kon-tuan egitarau zabalera egiteko".

EGIN BEHARREKO LANAK

Festan, baina lanean, 400 pertsona inguru egongo dira "Lehenengo Arrasateko Kultur talde eta alderdi politiko-ena jo genuen, guztiek baiezkoaz erantzun zuten eta herriko kuadrilak ere zuzendu ziren gugana. Inguruko herrietako kultur taldeak ere laguntzeko gertu azaldu dira, beraz, jende arazorik ez dugula izango uste dugu". Antolatzaileek oraindik ez dute lana banatu izango dira. "trafikoa bideratzeko, txoznetan egoteko, herri bazkaria banatzeko eta garbitasunaz arduratzeko jendea behar dugu, hori jai egunari dagokionez. Jai bukatzaren denean txukun uzteko beste lagun batzuk ibiliko dira lanean. Guztiendako lana egongo da eta zenbat eta jende gehiago batu, gauzak hobeto antolatuko ditugu".

Egunkariako festa ospatzeko 7 egun falta direnean azken orduko eginbeharrak baino ez dira falta, eguraldiak laguntzen badu arrakasta ziurtatuta dago.



Kike, Peio eta Ainhoa ibili dira jai antolatzen.

Egitaraua

Monterron Parkean

- 11.00** Tolosako Dultzaina
- 11.15** Herriko txalapartariak
- 11.30** Arroztaitz dantza taldea
- 12.00** Mikel Markez
- 12.45** Trikitixa Kontrairo taldea
- 17.00** Bertsolariak:
 - Estitxu Arozena
 - Jexux Mari
 - Igor Elorza
 - Unai Iturriaga
- 17.30** Oskorri
- 18.40** Exkixu
- 20.00** E.H. Sukarra

Otalora Kalean

- 11.00** Herriko txikitilariak
- 11.30** Kaxiano
 - Markos Landa
- 12.30** Herriko txalapartariak
- 12.40** Lore Gazteak dantza taldea
- 13.10** Barriketalariak
- 13.30** Bertsolariak:
 - Jon Sarasua
 - Imanol Lazkano
 - Sebastian Lizaso
 - Andoni Egaña
- 17.00** Bittor Aiape
- 18.00** Gozategi trikitixa taldea
- 19.00** Arkaitz taldea

Umeen Gunean

Sebastopoleko titiriteroak:

- Trapezioak
- Alanbreak
- Malabarak
- Zangoak
- Ohe Elastikoak
- Gaztelu Puzgarriak
- Rokodromoak

Egun guztian zehar

- Iraunkorrak txaranga
- Trikitixa
- Dultzaina
- Antzerkia
- Hankapaloak
- Sugea

Cho Oyu eta Lhotse Inñurrategitarren helburu

Felix eta Alberto Inñurrategi atxabaltarrak Himalaiako Cho Oyu eta Lhotse mendiak igotzen saiatuko dira udara honetan. Zortzi mila metrotik gorako bi mendiak zailtasun handikoak dira eta bi anaiak 20 eguneko epean igotzeko helburua dute. Lan guztia estilo arinean egingo dute, igoera ahalik eta azkarren burutzeko, horregatik ahalik eta taldekide gutxien biltzen saiatuko dira. Bi anaiak eta laguntzaile batek osatuko dute espedizioa eta laguntzailearen lana espedizioa behar bezala antolatzea izango da. Uztailaren amaieran Nepalerantz joango dira aklimatizazioa egitera, horretarako 6.000 eta 7.000 metro arteko mendiren bat igotzeko asmoa dute, Gokyo inguruan. Irailaren erdialdean, eguraldia lagun izanik, Cho Oyura igoko lirake eta urriaren hasieran Lhotseko tontorrera, etxera urriaren bukaeran etortzeko asmoz. Lhotse mendira ez da gaurdaino Estatuko mendizalerik igo, beraz, Murruxiko mendi taldeko mendizale hauek lehenak izan daitezke tontorra egiten.

Cho Oyuk 8.206 metro ditu, mendi honek 2.500 metroko horma du, haitz zaila eta 70°ko malda izotzean. Felix eta Albertok mendebaldeko hormatik gora egingo dute, Loretan eta Troillet suitzarren bidetik. Lhotse,



Felix eta Alberto Jose Ramon Zubizarretakin batera.

berri, 8.516 metroko mendia da. Zailtasun handienak 8.000 eta 8.500 metro artean ditu, gailurrera iristeko estu-uneak daude eta, 60°ko malda du elur eta izotz artean. Lhotse mendira ipar-ekialdeko bide arruntetik igotzeko asmoa dute, suitzarren bidetik.

Estatuko mendizaleen artean gailur nagusira egingo den lehen igoera izango da. 1980an espedizio kataluniar batek lehen ahalegina egin zuen eta 8.000 metrora iritsi zen, 91an eus-

kaldunen espedizio batek saiakera egin, eta 7.300 metroan egin zuen plan to. Inñurrategitarrek bi mendietan gailurra lortzen badute horrelako lorpen bat esku-ratzen duten Estatuko lehen mendizaleak izango dira. Espedizioa posible egiteko 7.058.000 pezetako aurrekontua izango dute.

Aretxabaletako espedizioari laguntzeko kamiseta batzuk atera dituzte eta Murruxikoko lokalean dau-de salgai 1.000 pezetaren truke.

KROSSA

Eskoriatza-Arrasate herri krosa domekan

Eskoriatza-Arrasate herri krosa egingo da domeka honetan. Arrasate Atletiko taldeak Arrasate Kirolakekin antolatzen duen lasterketa eguerdiko 12etan hasiko da Eskoriatzako plazan eta 12.30ak aldera bukatuko da Arrasateko Udaletxean. Korrikalariak 8 kilometroko ibilbidea izango dute aurrean, aurten aldaketa batzuk izango dituen hain zuzen: Takolo, Araba Ibilbidea, Arrasate Kirolak, Garibaiko semaforoak, Maalako rotonda, Maalako errebala, Sebero Altube, Okoretegi, Kondekua, Muxibarko Rotonda, Arbolapeta, Olatte eta Portaloitik herriko plazara joango dira korrikalariak.

Lasterketan 16 urtetik gorako korrikalariak har dezakete parte eta hiru mailatan banatuko dira seniorrak, juniorrak eta beteranoak. Beteranoek izena emateko orduan nortasun agiria aurkeztu beharko dute. Sariak dagokienez, seniorretan irabazleak 25.000 pezetako saria jasoko du, bigarrenak 15.000 eta lehen hamarrek dirua. Juniorretan lehenak 15.000 pezeta, eta ondorengo laurak ere izango dira sarituak. Beteranoetan azkarrenak 15.000 pezeta jasoko ditu eta bost lehenak izango dute saria. Sariak gizezkoetan zein emakumezkoetan berdinak izango dira.

ARRASATE TELEBISTA

ATB Berriak: Informatiborik ikusia

Publizitatea: ☎ 77 08 15



Rugby jokalarri beteranoek argazki ofiziala aterako dute domekan.

Rugby beterano taldea izango dugu Garagartzan

Arrasaten rugby beterano taldea osatu da eta domekan lehen partidu ofiziala jokatu du Bordeleko Archiball taldearen kontra. Neurketa Garagartzan hasiko da arratsaldeko 4.30etan. Zapatuan, berriz, Arrasateko jokalariek eta Bordelekoek afora izango dute Bide Gain elkartean gaueko 9etan eta antotzaileek esan digutenez emazte zein andregaiak ere konbidatuta daude.

Jokalarri beteranoek ez

dute nahi orain arte egindako lana partidu bakarrarekin bukatzea eta horregatik aurrera begira talde sendoa osatzeko gertu daude. Euren asmoa errealitate bihurtzeko rugbi jokalarri ohiei deia egiten zaie entrenamenduan parte har dezaten eta informazio zehatza izateko arduradunekin harremanetan jar daitezten. Sortu berri den taldearen asmoa ez da inguruko taldeen kontra jokatzea bakarrik, Estatutik kanpo

txapelketetan parte hartzea ere gustatuko litzaieke.

Domekako partiduari dagokionez, Bordeleko Archiball taldea esperientzia handikoa da, 1969 sortu zen eta 26 urte hauetan leku askotan jokatu du, hala nola, Senagal, Ingalaterran, Eskozian, Morocon, Thailandian. Arrasatearrak kurrikulum hain zabala ez eduki arren, onena ematen saiatuko dira domekan Garagartzan jokatuko duten norgehiagokan.

Ur jaia 95 igerilekuan

Ur jaia 95 egingo da Arrasateko Udal kiroldegian ostirala eta zapatu bitartean. 24 ordutan urarekin zerikusia duten ekintzak burutako dira, hala nola, Aguaerobic, salbamendu eta sokorrismoa, ur azpiko igeriketaren hasiera, Windsurfing-ari buruzko zenbait nozio, Sky-muntaia eta haur eta helduentzat jokuak. Jendeak dohainik parte hartu ahal izango du ekintzetan eta Waterpolo, aletadun igeriketa eta igeriketa sinkronizatuari buruzko erakusketak ere izango dira.

Ekintzen saioa ostira-lean eguerdiko 12etan hasiko da eta zapatuan eguerdiko 12etan bukatu, aipatutakoaz gain, igerilekuan kale bat jarriko da "Igeriketa 24 orduen" bigarren edizioa burutzeko. 1993an errekorra 69.5 kilometrotan ezarri zen eta aurten marka haustea espero dute. Saiakeran parte hartzeko interesatuek Musakolako kiroldegian eman beharko dute izena.

Futbitoan azken jardunaldia larunbatean

Lehen mailako futbito taldeak Erandioren kontra jokatuko du Iturripen denboraldiko azken partidua. Neurketa zapatuan arratsaldeko 6etan jokatuko da. Arrasatek dagoeneko ez du lehen mailan jarraitzeko aukerarik. Lau taldek jeitsi behar dute eta horien artean dago Arrasate. Hala ere, garaipena lortzen saiatuko dira zapatuan, puntuak beti dira ongietorriak eta. Arrasatek bi baja garrantzitsu izango ditu, Aitor Balzategik ezin du jokatu bi partiduko

zigorra bete behar duelako eta Nandok hiru partiduko. Narciso entrenatzailea ere zigor-tuta dago lau partidurako, gainontzeko jokalarriak jokatzeke sasoian izango dira.

Lehen mailakoek jokatuko dituzten 29 partiduetatik 7 irabazi zituzten, 4 berdindu eta 18 galdu. Sailkapenean 13. daude 18 punturekin. Erandiotarra taldea 11. dago 24 punturekin.


Talde biak ez dutenez ezer jokuan, lasai kantxaratu daitezke eta joku ona erakutsi.



Lehen mailan jokatuko duten azken partidua izango da

BIZIKLETA MARTXA

ARRASATE-OÑATI-ARRASATE



Eguna: **ekainaren 3, larunbata**

Ordua: **goizeko 10ak**

Irteera-tokia: **Herriko Plaza**


**TRENBIDE ZAHARRA
ERABILIZ
BIDEGORRIA ERAIKI**

Antolatzailea

Lurrats Elkartea

Laguntzaileak

Arrasateko Txirrindulari Elkartea
Deba Garaiko Zikloturista Taldea
Dorletako Ama Txirrindulari Eskola
Besaide Mendizale Taldea
Herriko Ikastetxe eta Ikastolak
ASA Argazkilari Taldea
Abaroa Jubilatuen Elkartea
AUKEA,...



Z E R N A H I A G O ?

Mariasun Arizaga

“Oihana” loradendakoa



- Arrasatearrak lorazaleak gara? Bai.
- Zenbat lora sorta saltzen duzue egunero? Zaila da esatea, egunaren arabera izaten da hori.
- Loreak oparitzeko ohiturarik badago? Bai, eta azken urteotan gora egin duela uste dut.
- Egia da lorak ondo hasteko berauekin hitzegin behar dela? Ez dakit, baina musikarekin frogatuta dago eta adibidez, beraiengana artazi batzuekin hurbiltzen bazara somatu egiten dute.
- Noiz izaten duzue lan gehien? Erramu igandean.
- Lore asko dituzu etxean? Ez, zaintzeko denborarik ez dudalako.
- Zer egin beharko luke alergiko batek dendan lan egin ahal izateko? Oso txarto pasatuko luke, baditugu kanpoan itxaron behar duten erosleak ere.
- Euskal Herriko lorarik ezagunena? San Jose lorak.
- Zeinek oparitzen du lore gehiago; emakumezkoak ala gizonezkoak? Betidanik gizonezkoak gehiago, baina orain emakumeek gizonezkoek adina oparitzen dute.
- Zer lora sorta eramango nuke 5.000 ptarekin? Lore sorta nahastua; margarita amerikarra, gladioloak...
- Saltzen duzuen lorarik bitxiena? Anturiunak, oso garestiak dira eta jende gutxi erosten ditu.
- Nori oparituko zenioke lora sorta bat? Zuri.
- Noiz egiten dituzu urteak? Urtarrilaren 22an.
- Zuhaitz bat? Haritza.
- Izan zara inoiz hauteskunde mahai batean? Bai, birritan.
- Erretzen duzu? Lehen bai, orain ez.
- Frakak edo gonak? Frakak.
- Zer falta da Arrasaten? Komun publikoak.

Jose Maria Arizmendarreta X. Lehiaketa

Gizabidea Fundazioak antolatuta eta Euskal Herriko Irakaskuntza Ertainetako ikasle guztiei zuzendutako On Jose Maria Arizmendarreta Lehiaketa abian dago. Aurtengo X. edizio honetako gaia “Euskal Herria eta tolerantzia” da. Lanak bi mailatan banatu dira: A maila 14-16 urte bitartekoei zuzenduta eta hauek gutxienez 15 orrialdeko lana aurkeztu beharko dute; B maila 16-18 urte bitartekoentzat, eta hauek lez gutxienez 25 orrialdekoa izan beharko da. Sariak hauek izango dira: A mailan, Ingo saria 100.000 pta, 2. saria 50.000 eta 3.a 20.000 pta. B mailan, 1n saria 150.000 pta, 2.a 75.000 eta 3.a 30.000.

Lanak azaroaren 7a baino lehen entregatu behar dira Gizabidea Fundazioaren egoitzan eta sari banaketa On Jose Mariaren omenez azaroaren 30ean egingo den ekintza akademikoan izango da. Lehiaketako oinarriak ikastetxeetan banatuko dira.

IPAR-HEGOR TRUK

UZTAILA AHAZTEZINA PASATUKO DUZU!!

Astebete Arrangoitzeko (Lapurdi) aterpetxean, bigarren astea Elosuko aterpetxean.

Norentzat: OHoko 5. eta 6. mailakoentzat.
Noiz: Uztailaren 17tik 30era

Informazio zehatzagoa:
Txatxilipurdi. Pablo Uranga, 4
Tfnoa: 79 54 46



Jesus Maria Etxeberria

'Carmina Burana' ren arrakastaz harrituta

Hogeita bat urteko musika zuzendari eta konpositore nafar nonek horren arrakastatsua izan zen kontzertua zuzendu zuen. Batuta alde batean utzi zuenean Arrasateko fenomeno musikari buruz galdetzeko aprobeztatu genuen.

— Mikhail Pletnev-ek zuzentzen du Errusiako Orkestra Nazionala baina Arrasaten, Gasteizen eta Donostian zuk zuzendu duzu. Zer moduzko harrera izan duzu musikari errusiarren aldetik?

— Oso ona, benetan. Orkestra honetako musikak bere zuzendariarekin, Mikhail Pletnev-ekin jotzera ohituta daude eta bapatean halako zuzendari gazte batek zuzentzea nahiko arraro egiten zitzaion. Hasieran beldurra nuen, musikoek ez nindutela onartuko uste nuen, nirekin entsaio gehiago egiten dituzte eta, baina guztiz kontrakoa gertatu da. Entsaioekin hasi ginenean harrituta geratu ziren, aurretik nola ezagutzen ez ninduten galdetzen zioten euren buruari eta konfidantza handia eman zidaten. Normalean zuzendaria izaten da musikoak animatu behar izaten dituen baina kasu honetan eurak animatu naute aurrera jarraitzeko.



— Eta entzulegoaren aldetik, zer moduzko harrera izan du orkestrak?

— Oso ona ere. Gainera, errusiarrek harrituta geratu dira hemengo jendeak zein indarrez egiten duen txalo ikustean, atzerriko publikoa ez da hain beroa eta. Gasteizen Arrasateko arrakasta bera

izan genuen baina Printzipala handiagoa delako eta guztiz bete ez zelako agian, Arrasateko harrerarekin pozik geratu nintzen. Arrasatekoa izugarria izan zen; azken akordea jo eta segituan hasi zen jendea txaloka eta "bravo"ka eta egia esan, oso emozionala izan zen.

.....

“Errusiarrek harrituta geratu dira hemengo jendeak zein indarrez egiten duten txalo ikustean”

— Arrasatera datozen orkestra eta musikari handien fenomenoak ez da beste herri batzuetan ematen; pribilegiatuak ei gara... Zer diozu zuk?

— Arrasate Musikalek egiten duen lana oso garrantzitsua iruditzen zait. Oso ondo dago herrira orkestra handiak eta famatuak ekartzea baina batez ere herrian errotzen ari den hezkuntza musikala azpimarratuko nuke: Arrasatera datozen musikoek, kontzertuak emateaz gain, akademiako ikasleei klaseak ematen dizkiete eta luxu hori ez du Estatuko beste inork. Epe luzerako proiektu bat da Arrasate Musikalek martxan jarri duena eta gutxinaka gutxinaka Arrasateko musika ikasleak atzerriko musikoen ekarpenak bereganatzen ari dira. Ni neu ere epe luzerako proiektu horretan sartuta nago; ostiralero akademiako orkestra zuzentzen dut eta pixkanaka pixkanaka, orkestra sinfonikoan bihurtuko da. Luis Sagasta, akademiako lehendakariak, ilusio handia dauka proiektu honetan eta dudarik gabe, Eduardo Clausen Zubiriaren aportazioa ezinbestekoa da ere; gizon hau aberasteko asmorik ez duen mezenasa da, eta gaur egun ez da horrelako gehiegi ikusten.



Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118



- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE


AEDren Kantu Jaialdia: "Arrasate Kantari"

AED elkarteak Kantu Jaialdia antolatu du ekainaren 10erako gaueko 10.30etan Amaia Antzokian. Aspaldi egin zuten antolatzaileek jaialdi honetan parte hartzeko deialdia eta dagoeneko, 8 taldek eman du izena.

Talde batzuk instrumentuekin lagunduta abestuko dituzte euren kantuak eta beste batzuk barik. Talde gehienak Arrasatekoak direla aipatu behar da; kanpotik datorren bakarra, Jose Mari Larrañaga azpeitiarra izango da, aurtengo Euskadi Irratiko kantu lehiaketa irabazi duena. Dena dela, kontuan izan behar da jaialdi honetan ez dela irabazle eta galtzailerik egongo; euskal-kantu erakustaldi bat baino ez da izango.

Partehartzaileak

Jaialdiko lehen kantaria Amaia Zubiriá izango da. Amaiak, pianoarekin lagunduta, "Nik badut maiteño bat" eta "Bizi ezitia ezagutu dut" kantak abestuko ditu. Bigarren taldea, "Bihotzalai", Izaskun Altunak, Arantxatzu eta Itziar Bedialaunetak, Maria Nieves eta Inmaculada Galvezek, Maria Martinez Maritxalek, Rakel Murgiondok eta Susana Toraci dok osatzen dute. Hauek "Ku-



Arrasaten aspaldi antolatzen zen kantu-jaialdia gogora ekarriko digu AEDko jaialdiak.

ku", "Gurea da!" eta "Ederra da Donostia" kantatuko dute pianoaz lagunduta. Hirugarren taldea Iban Herrartek, Nere Indak eta Joana Lasak osatzen dute: "Herriko festak" eta "Begiak parrez-parrez" kantatuko du "Geu bixok ta beste bat" taldeak trikitixa eta panderoaz lagunduta.

Naiara Okinak eta Ines Osinagak osatutako bikoteak, "Hauspo zahar, hauspo berri" eta "Potpourri" abestuko dute trikitixa eta panderoarekin. Hauen ostean, Jose Mari Larrañagak bakarka abestuko du "Agur ama nerea" eta "Maite, maite, maitia".

"Maiatzak hamar" izeneko taldea institutoko hainbat ikaslekin osatzen du: Yolanda Aguiyok, Haritz Fernandezek, Joxerra Larrañagak, Gorka Rubialesek, Eider Solupek eta Unai Urretxok eta hauek, pianoa, saxoa, tronboia eta kitarrak, "Triste bizi naiz eta", "My way" eta "Yesterday" abestuko dute.

Zazpigarren taldea Rafa Agirrek, Juanito Arzamendik eta Arantxa Uriartek osatuko da. Hauek "Duo y Romance de Mirentxu" abestuko dute. Azken taldea Arrasate Musikaleko hainbat partaidere. "Zazpiak bat" taldea

hain zuzen; Edurne Abasolok Joxe Arrietak, Cristina Cubillok, Roberto Madinabeitiak, Xabier Olabarriak, Iñaki Olaiatzok eta Silvia Solanak "Beñat Mardo" eta "Ama" abestiak eskainiko dituzte.

Kantu jaialdiari amaiera emateko, talde guztiek batera "Agur Jauna" abestuko dute. Azkenik aipatu, partaideek jaialdian parte hartzeko bete behar zituzten baldintzak hauek zirela: Hamabost urtetik gorakoak izatea, bakarka zein taldeka aurkeztea gehienez zortzi laguneko taldeak osatu eta euskerazko kantuak abestea.

AVICOLA IRAIN

Arraultza freskoen banaketa - Arraultza pasteurizatuak-Urdaitegia

Tfnoa (943) 72 43 90 - 76 63 03 Faxa (943) 72 43 90
Ezkio Itsaso - Antzuola



U

UCEA, Unión Cerrajera Escuela de Aprendices izenarekin bazen Mondragoen futbol talde bat. Eskolaren izena bazuen ere, bertan jokatzen zuten jokalariek ez ziren eskolako ikasleak bakarrik, lanean ari zen jendea zen-eta gehiena.

1949ko abenduaren 4an

partidu garrantzitsu bat jokatu zuten Iturripeko zelai zaharrean, eta Gipuzkoa mailako txapelketa, 2. erregionalekoa, irabazi egin zuten Oñatiko Aloña-Mendiren kontra, 4 eta 3. Egun seinalatu hartan Oñatitik tren espeziala antolatu zen eta bete-bete eginda etorri zen, herritarrak animatzera.

Partidua hasi aurretik atera zuten erretratu honetan, zutik ezkerretik hasita, **Tristan** (masajista), **Inazio Mendizabal**, **Manolo Aranburu**, **Jose Antonio Mendikute**,

Eduardo Valdés, **Heriz**, **Pedro Uribetxebarria**, **Jose Luis Kortabarria** eta **Joseba Agiriano** (porteroa).

Makurtuta ezkerretik, **Eugenio Resusta**, **Luziano Jauregi**, **Jose Mari Kortabarria** eta **Juan Jose Uribarren**.

Ekipoko lehendakaria Gaspar Ezkurra zen eta entrenatzailea berriz Jesus Vitoria. Entrenamenduak astean behin egiten zituzten, Zaldispeko pizina ondoan eta partiduan ere normalean bertan izaten ziren. Final inportante hura, hala ere,

Iturripera eraman behar!

Ekipoak bost bat urte edo iraungo zituen denbora horretan buelta asko egin zuten Gipuzkoan zehar. Hara eta hona ibiltzeko Zerrajerako "Ford" kamioia erabiltzen zuten, Antonio Gonzalez Zerrajerako langilea txofer zutela, euriarekin toldoaz, eta bestela barik.

Partiduak amaitutakoan bokadiloa eta gaseosa ematen zizkieten jokalariei. Aloña-Mendiren kontra irabazi eta gero ere ez zuten aparteko celebratorik egin, txikiteoa bai...

Arreta
haundiko
sukaldea

Garagartza auzoa

UGARAN
jatetxea

Tfnoa: 79 76 58

Giro
abegikorra

ARRASATE

San Juanak

IRTEERA BEREZIAK

PORT AVENTURA

EIBAR-ARRASATE



PROGRAMA

- **IRTEERA**
Ekainak 24, 7etan.
Ekainak 25 Port Aventura.
- **ITZULIA:** Ekainak 26, 3etan.
- **PREZIOA:** 11.950 pta helduak eta 8.325 pta haurrak.
- **SARRERA:**
 - 3.400 pta. helduak.
 - %25aren beherapena haurrek.
 - 20 laguneko taldea gutxienez.
- **BARNE:**
 - Luxuzko autobusa.
 - 3 izarreko hotela, Segur De Calafell-en.
 - Pentsio-erdi.
 - Bidaiarako seguru berezia.

EURODISNEY


EIBAR-ARRASATE

PROGRAMA

- **IRTEERA**
Ekainak 23, 22etan. BUS LITERA.
Ekainak 24 eta 25ean ESTANTZIA EURODISNEYn.
- **ITZULIA:** Ekainak 26, 10etan.
- **PREZIOA:** 38.500 pta. helduak eta 19.700 pta. haurrak.
- **BARNE:**
 - Luxuzko autobusa / litera (joateko).
 - Sta. Fe hotela (alojamendua eta gosaria) 2 GAU.
 - Parkerako sarrerak.
 - Bidairako bidai aseguru.



INFORMAZIO ETA ERRESERBAK



ECUADOR
BIDAIK
NAZIOARTEKO
BIDAIEN ORGANIZAZIOA

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tfnoa: 79 14 06




• ESAERA •

“Karitatean ez dago gehiegikeriarik”

BACON

• JEROGLIFIKOA •



Bizkaiko udalerrri jakintsua.

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8			9			
10			11			
12		13				
14						
15			16		17	18
		19				

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Fernandez, Mondra-ko atzelaria. 5 (Ald.) Leherketaren onomatopeia. 8. Urte bateko denbora-bitartea. 10. Amerizioa. 11. Itsasuntziaren goiko ertza. 12. Nagusi bihurtu. 14. Janari eta edarien kontrola. 15. Sexu maskulinoa duen animalia. 16. Liburu-itxura duen mapa-bilduma. 19. Gipuzkoako udalerria.

Bertikalak 1. Afrikako erdialdeko estatu. 2. Altzari altua. 3. Alde hemendik. 4. Oso urrun. 5. Neuri. 6. (Ald.) Tartekatu. 7. Berandu. 9. Landu, hezi edo zaindu gabea. 13. Alfabetoko 7. letzaren izena. 17. Leongo ibilgailuetan. 18. Euskal atzizki femeninoa.

• HOROSKOPOA •

Aries Hieroglifikoak asmatzen tre-bea zara baina ez zara arraultza bat fritzeko gai.

Taurus Inguruko guztiak bero-bero eginda uzten dituzu.

Gemini Azenario larregi jaten duzu. Kontuz, belarriak handituko zaizkizu!

Cancer Kirola egitea ondo dago baina ostean izerdi usaia kendu behar da.

Leo Zergatik uste duzu jendeak ezin zaituela ikusi ere egin?

Virgo Zorte onak zure etxeko atea joko du. Zabal egiozu!

Libra Sekta baten sartzea gomendatuko dizute. Ez kasurik egin.

Scorpio Zure jazkera modan dago. Nork esango zuen!


Sagittarius Gurasoei kasu gehiago egin behar diezu. Eskertuko dizute.

Capricorn Bueltatxo bat ematea ondo etorriko zaizu.

Aquarius Oso ahots ona duzu. Inork ez dizu esan?

Piscis Guztiok gara arraroak, baina zu...

DANTZARIAK • TXALAPARTA • ARRASATE
 MUSIKAL BANDA • BITTOR AIAPE
 SEBASTOPOLEKO
 TITIRITEROAK • KAXIANO
 MARKOS LANDA
 BERTSOLARIAK
 ANTZERKIA • GOZATEGI
 HAUR JOLASAK • KONTRAIRO
 ARKAITZ • OSKORRI • EXKIXU • E.H. SUKARRA...



EUSKALDUNON Egunkaria



TELEBISTAREN TXOKOA

PROGRAMAZIOA



5 astelehena
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

6 Asteartea
13.30etan
Mondrasport (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan

7 Asteazkena
13.30etan
ATBketan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Pareak Jokuan

8 Osteguna
13.30etan
Pareak Jokuan (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Trebelanak

9 Ostirala
13.30etan
Trebelanak (errep.)
19.50etan
Kukaratxa Motel berezia
20.00, 20.30 eta 21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete
22.00etan
Marrakzi Bizidunak

Adio "Kukaratxa Motel"

Datorren ostiraleko "Kukaratxa Motel" programaren azken saioa ikusi ahal izango da. Lehiaketari behar-bezalako amaiera emateko, Unai, Betirtzek eta Agustinek sekulako programa prestatu dute. Bideoak egiten oso trebeak direla badakizue, baina dato-


rren ostiralerako prestatu duten programa bereziak, aho zabalik utziko zaituzte. Lehiaketa guztietatik pasarte barregarrienak aukeratu dituzte eta programa dibertigarri bat prestatu dute. Ez ahaztu ostiralean 19.50etan izango duzula programa hau ikusteko aukera. Ez zara damutuko!

KOMIKIA



SOLUZIOAK

Horizontalak: 1.Raul, 5. Nub, 8. Urtebe, 10. Am, 11. Karel, 12. Nagustin, 14. Dieta, 15. Ar, 16. Atlas, 19. Urnieja.
Bertikalak: 1.Ruanda, 2. Armat, ru, 3. Ur, 4. Lekutan, 5. Neri, 6. Ute, ru, 7. Belu, 9. Basati, 13. Ge, 17. Le, 18. Sa.
Jeroglifikoak: Leioa.



EGVZKiGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Etxebizitzak

- **Torreviejan apartamentua** alokatzen dut aste-ka edo hamabostaldika. Guztiz jantzita dago eta hondartzaren ondoan. Tfnoa: 78 14 72.
- **Garaje itxia salgai.** 20 m². Uribarri etorbidean. Pal ferreteriaren azpian. Tfnoa: 79 54 03.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** Tfnoa: 79 30 72.
- **Bi oheko gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73
- **Pisu bila ari gara.** Eskola Politeknikoaren ondoan bada hobe. Lau-bost lagunendako. Tfnoa: 18 03 78 (astebukaeratan deitu).
- **70m²ko lonja alokatzen da.** Ura eta argia ditu. 40.000 pta.
- **Arrasaten lau edo bost** lagunendako pisua alokatzen da. Tfnoak: 77 03 38 edo 79 18 03.
- **Garaje itxia** alokatzen da Larrea aldean. Tfnoa: 79 69 41. Julia.
- **Pisua salgai Zarautzen.** Tfnoa: 78 19 50.
- **70 m²ko lonja alokatzen da** ura eta argia ditu. Tfnoa: 79 76 95.

Lana

- **Astebukaerarako Dukiena** jatetxeak zerbitzari baten beharra du. Harremanetarako dei egin (945) 44 50 86.
- **Esperientziadun neska** bat eskaintzen da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 71 44 27. Rakel.

- **Neska pres** etxeko lanak egin eta umeak zainzteko. Tfnoa: 71 48 50.
- **Emakume euskalduna** etxeak garbitu eta umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun neska** umeak zaintzeko prest. Dei egin arratsaldeko 4ak arte 79 77 94 tfnora.
- **Neska euskalduna behar da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin gaueko 9etatik 10etara. Tfnoa: 77 01 30.
- **Informatika, ingineritza edo enpresa** zientzietan lizentziatua behar da. Tfnoa: 79 42 78.
- **Pertsona nagusiak zaintzeko** esperientziadun andra prest. Dei egin arratsaldez edo asteburuetan 77 04 60 tfnora. Margari.
- **Kontabilitateko klaseak hartuko nituzke.** Tfnoa: 79 71 05.
- **Umeak zaindu**, etxeko lanak egin edo denda baten lan egingo nuke. Tfnoa: 79 93 17.
- **Esperientziadun emakumeak** etxeko lanak egin-go lituzke. Tfnoa: 79 31 58.
- **Neska bat behar da 3. BBBko** mate, fisika eta kimikako klaseak emateko. Dei egin gaueko 8etatik 11etara 79 69 76 tfnora.
- **Erizain laguntzailea** eta geriatrian esperientziadun andra prest pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 34 53.

Salerosketak

- **Kotxea salgai:** Opel Corsa Swing SS-6501-V. Oso egoera onean. Deitu Tfno: 770281.
- **Suzuki DR-BIG 50 c.c** salgai. Tfno: 782979. Iban.
- **Ford Transit** salgai. 100.000 kilometro ditu. Prezio eta egoera onean. Tfno: 714894. Joxe Mari.
- **Kotxea amidegitik behera**, soloik-solo joan zaidalako aldatu beharra daukat. Kotxe on bat baldin

- badaukazu, aukeran gogorra eta ahuntz samarra dei egidazu. Tfnoa: 79 76 92. Juanito
- **Siberian Husky arrazako** txakurkumeak salgai. Tfnoa: 79 09 54.
- **Kotxea salgai.** Opel Corsa Swing. SS-U. Oso egoera onean. Dei egin: 77 02 81.
- **Sukaldeko altzariak salgai**, sukalde eta ekonomika eta guzti. Egoera onean eta merke. Jangelako altzariak ere salgai. Deitu eguerdian edo gauen 79 01 66 tfnora. Arantzazu.
- **Collie kumeak salgai.** Dei egin 79 08 98 tfnora.
- **Cady markako motor beltza salgai.** Asegurua dauka iraila arte. 30.000 ptatan. Tfnoa: 77 09 36.
- **Karro denda** bat erosi nahi dut. Tfno: 79 65 70 8etatik aurrera deitu.
- **Opel Kadett 1.6. S,** BI-AK salgai. Prezio ona. Tfnoa: 86 14 16. Nekane.
- **Opel Astra Turbo diesel Inter Cooler** salgai. BI-BP. Aukera ona. Tfnoa: 86 14 16.

Denetarik

- **Gasteiza joaten naiz egunero**, eta goizeko 8etarako bertan egon behar dut. Norbaitek joateko autoa nahi badu. Tfno: 79 80 91. (Gauetz deitu).
- **Joan den larunbateko** SFX-eko abesbatzen topaketetan klabeek betetako kaxa bat desagertu zen, Amaia antzoki inguruan. Norbaitek ikusi badu, mesedez San Frantsisko Xabier-era dei egin dezala. Tfno: 79 64 79.
- **Musika talde bat**, beste talde batzuen bila dabil lokal akondizionatu bat konpartitzeko. Tfno: 799134. Miguel.
- **Orixol mendian ortodoncia** aparatu bat aurkitu nuen domekan. Tfnoa: 79 33 20.

Aste Gazte

Bekak

• "Guggenheim Fundazioak" administrazio museistikoan 10 beken deialdia egiten du. Beken iraupena bi hilabetekoa izango da, irailan eta urrian. Epea: ekainak 8.

Lana

• Osakidetzak, aldi baterako lana egiteko, ordezkapen zerrendak zabaldu ditu. Maila profesional ezberdinak (sendagileak, klinika laguntzaileak...). Epea: ekainak 30.

• Lea-Artibaiko Mankomunitateak, administrari laguntzaile bat eta drogomenpekotasuna-

ren prebentziorako teknikari bat behar du. Epea: ekainak 6.

95-arrisku soldata programa

• Arrasateko Udalak deituta, enpresa ideia bat eduki eta bere negozioa martxan jartzeko asmoa dutenei zuzentzen da programa hau. Negozioaren bidegarritasuna aztertzekeo laguntza eskaintzen da. Epea: uztailak 28.

Kirola eta abentura (diputazioa)

• 18-29 urte bitartekoei zuzendutako oporraldi egitarau ezber-

dinak: kultur ibilaldiak, uretako ekintzak, ibilaldi oinez... Plazak, izena emandako hurrenkeraren arabera banatuko dira. Izena emateko epea: ekainaren 1etik 23ra.

Ikastaroak

• "Kirol urpekari" titulua lortu ahal izateko ikastaroa. Bergaran, ekainaren 19tik 25era. Prezioa: 34.000pta Deba Garaiko edozein Udala Kirol Zerbitzueta-ko bazkideentzat; 38.000pta gai-nontzakoentzat. Irakasleak: Elgoibarko Ur-Bizi elkarteak kideak. Plaza mugatuak. Epea: ekainak 15.

"Ume bat bihar izango denarekin arduratzen gara, baina ahaztu egiten dugu gaur jadanik norbait dela."

STACIA TAUSCHER



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65



ZATOK EKOKONSUMERA ETA ON DAGIZULA

EKOKONSUM-ELIKADURA 2000 ERAKUSKETA bisitatzen gonbidatzen zaitugu. Zatok elikadura eta osasunari, janarien manipulazio eta kontserbazioari edota elikadurako teknologia berriei buruz jakitea interesatzen zaizun guztia modu erraz eta atsegin batean ezagutzera.

Zatok EKOKONSUM ELIKADURA 2000 erakusketara. Eta on dagizula.

SARRERA DOAN



Maiatzaren 30etik Ekainaren 10era

Lekua:

LAUBIDE PLAZA . ARRASATE

Ordutegia:

Lanegunetan

10etatik 13etara

15etatik 20etara

Jaiegunetan

11etatik 14etara

17etatik 20etara

Antolatzailea:



40
AÑOS-URTE

HACIENDO
LAGUNAK

AMIGOS
EGITEN



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores,
dotoretasunez apaintzen
duten kalitatezko
altzariak, Garibai, 9an.



**Amuebladora
Mondragonesa**

centro hogar
prezio-kalitate onenean
denentzat altzariak gure
pabilioi izugarrian,
Zigarrola, 1 ean.



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. sukaldeak
sukalde altzariak XEYren
garantiaz, Zerkaosteta, 3an.

Irabaz ezazu mountain-bike
bat bakarrik gu
bisitatzeagatik, EDO
HOBETO, ERAMAN EZAZU
DOHAINIK zure altzariekin.

